


BIZIAN GORA

Zu ta ni, Biok

1



Zu ta ni, Biok



A. Martzel Andrinua


BIZIAN GORA



Zu ta ni,
B *iok*

*Zu ta ni, gero ta alkarren urrago;
etxeko atari zabala aurrean,
barruko argitan dizdiz.
Arrats beeran eguzkirantz,
geure ostean luzatzen da gerizea.
Bizian gora, goaz...*

Euskal Biblioteka Labayru



1012344

LITERATURA / N. 677

BIZIAN GORA

A. Martzel Andrinua

Zu ta ni, Biok

NIHIL OBSTAT
Karmelo Etxenagusia Uribe
Eliz-azterlea

IMPRIMATUR
Bilbon, 1994ko azaroaren 7an
Larreatar Koldobika Mirena

Irudiak:

Hilario Urkia

ESKEINTZA

Zu ta ni, biok... *Bai orixe.*
Gure nagusiak Jainkoagaz
artu-emonian, adizkide lez.

Nagusi edo zaarrrak nortzuk diran?
Ikusi egin bear bere burua nork
artzen dauen zaartzat.
Ez da naiko inork deitzea.
Dana dala, gure euskal nagusiak
beti agertu izan dira zabalik
Jaunaren aurrean. Geienbat beintzat.
Orain, zaartzaroan, geiago,
udazkenean intxaur-gaztaiñak lez,
oskolak arrakalatuta,
barruko mamin gozoa
erakusten dabela.

Adiñez Jaunagandik urrago,
Beragaz adizkideago
eta biotzez gozotuago.
Ze ikuskizun ederra:
bizitza gaillurrean
Jainkoaren adizkide izatea!
Beti izan dira errezuzaleak.
Zenbat agur Mari ta ora pro nobis

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako
 Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dau.

© Ibaizabal Argitaletxea, 1994
 ISBN: 84-7992-564-7
 Legezko gordailua: BI-2302-94
 Inprimategia: Salingraf S.A.L.

eguneroko arazoan erdian...
Orain, zaartzaroko astialdi
luzeetarako beste otoitzbide bat
eskeintzera natortzu: zaartzaroko
egoera bertatik otoitz egiteko
aukera bat, Jaunagaz biotzetik
biotzera, aurrez aur jardunaz,
Zu ta ni, biok;
orixe izan gura leuke
esku-liburutxu onek.

Aintxiñako sermoi ta misiñoetan
agertzen zan Jaungoiko zorrotz
eta betozko illunekoa,
orain, bizitzako gaillurrean,
besoak zabalik agiri da;
seme-alabak erbestetik
etxera urreratzean,
atarian irribarrez zain.

Benetan Aita maitakor
eta maitagarria.
Aren biotz gozoa ta Etxeko beroa
aurretiaz txastatzen
emotera jatortzue ordu onean.
Asmo horregaz egin dot beintzat.

Bizian gora deritxon
kristau jubilatuen mogimendua
dot gogotan, batez be.
Eurei eskeintzen deutset
oparitxo au. Urteen eta
gorputzaren berezko lege danez
beerantza-orduan, gogo biotzez
gorantza ekin daiozuen.

Bizkaiko euskera errez
eta errikoian aalegindu naiatsue,
bestelako barriko trabarik gabe.
Trinidad Santuak
onako iru bitxiok eskuratzen
lagundu daizuela:

- Jainkoa, uste baino urrago,
dogula usmatzen.
- Euskerea be, askok uste baiño,
obeto dakizuela agertzen.
- Eta zaarrak izanarren,
oraindiño bide luzea
geratzen jatzuela eta,
alperrik galdu bearrean,
gure Jainkoa lagun,
gauza on asko egiteko aukerea
dozuela adierazoten.
On dagitzuela!

*Euban, 1994.ko urriaren 19.an
Gurutzeko San Pauloren jaiotzako
III. mendeurrenean.*

A. Martzel

1

ZU TA NI, BIOD

Urteak urte, gaur aurkitzen naz
bizitzako gaillurrean,
fede-argitan, or atarian
Aita neure zain urrean.
Au jakiteak ez nau ipinten
ikaraz ta bildurrean;
ez al zĩnan zu, Jesus, agertu
ni salbatzera lurrean?
Eta nigaitik bizia emon
kurutzeko egurrean?
Geratzen dan apurrean
ta mundutik agurrean,
Zu ta ni, Biok bizi gaitezen
artuemon samurrean,
ikusi arte ta besarkatu
alkar Aitaren aurrean.

**JAUNA, ZUK NAI DOZUNAZ
BAT NATOR**

Ene Jainko maitea,
goizero Zugana nator,
ez dakit zer jazoko jatan gaur,
ez dakit, ezertxo be ez...
Baina au bai, badakit:
Ez jatala ezertxo be jazoko
Zeuk aurretiaz ez dakizunik.
Eta auxe da naiko niretzat.

Aita ona,
betidanik dozuzan
asmo eta bide ezkutuak
apalik adoratzan dodaz
eta gogo onez jartzen naz
zeure esanera.
Orixe nai dot neuk be,
danori onartzen dot.
Eta nire menpekotasuna
ta sufrimendu au
Jesukristorenaz bat egiten dot.
Bere izenean
eta bere irabaziakaitik
auxe eskatzen deutsut:

nekemiñetan eroapena,
datorren guztiaren aurrean
menpekotasun oso-osoa.
Jazo bekit Zeuk nai dozunez.

3

**BIOTZ GAZTEA DAUKAN
ZAAR BATEN OTOITZA**

Beti gazte eta beti alai
zaran Jainkoa,
zaindu Zeuk nire umorea, nire
irribarrea,
naiz ta agin bako agoa erakutsi
Emoidazu biotz gazte ta alaitsua,
gauza ta pertsona bakotxa
bere lekuan ipinten dakiana,
gauza danetan alderdi ona ikusten
erakutsi egidazu.

Leku guztietan albiste onak batu
eta baztarrik baztar bananduten
dabilen *nunzebarri* xelebrea
izan nai dot.

Egizu nigaz, Jauna,
dana alkarbanatzen
dakian zaartxo bat:
astia, ondasunak, lorak, zoriona...
Ez egidazu itzi
leengora begira bizitzen,
Zeugaz batera
aurrera bultzatu nagizu.

Egin nagizu, Jauna, zeure antzeko;
beti zaar eta beti gazte;
emoidazu zeure gaztetasunetik bizitzea
neure eta besteen bizitza gaztetzen
eta bizi-pozez betetzen
aalegindu nai dot.

Jaun maitagarria,
Zuk aro ezbardinak ipiñi dozuz
bai urtean zear, bai gure bizitzan:
Egizu, izan naitela,
bizitzaro guztiak pozez bizi dituan
jubilatu bat. Amen.

**ZEIN EDERTO GAGOZAN EMEN,
JAUNA**

Jauna, Jesus maitea,
barriro be alkarregaz gagoz.
Alkarregaz Zu ta Ni.
Zure bizitza nire bizitzan
barruraino sartu da.
Nire bizitzako historia
ain arina da, ain utsa,
ain erdizkakoa...
Neure bizitzako gaillur onetarik
begira, askotan diardut neure kautan:
Nire bizitzak
ba ete dauka zentzunik?
Ainbeste utsune,
ainbeste naste-borraste,
ainbeste leialtasunik-eza...

Baina Zugaz nagonean,
bizi-poza ta barrugiro ederra
birjaioten jataz,
bizi-barritu banintz lez.

Gogoan daukat, Jauna,
Pedro-ta lagun arturik,

Tabor mendira igon zendunekoa:
Zure arpegia antzaldaturik,
argitasun eta dizdiraz beterik.
Zu zara, Jauna,
Zu argi guztien Jainkoa.

Neuk be, neure zaartzaroko
mendi gaillurrean,
Zugaz bat egin nai dot, Jauna.
Zure arpegi dizdiratsua ikusi nai dot.
Ona da Zugaz alkarbizitza,
ona da zure ondoan egotea.
Baiña askoz obe da, Jauna,
askozaz obe,
zure graziz ta maitasunez
bizitzan neugaz zagozalako
ziurtasuna eukitea.

Askatasunez, alai ta pozez beterik
eskatzen deutsut:
Gero ta geiago Zugaz bat egiten
joan naitela;
nire jubilaziñoko
unerik luze ta gozoenak
Zugaz bakarrean egoteko
izan daitezela;
nire zaartzaroko mendi gaillurrean

Zugaz bat-bat egin naiten.
Apostoluen antzera,
esan aal izateraiño:
Zein ederto gagozan emen, Jauna.



5

BAKARRIK NAGO

Begira, ene Jainko,
nire bizilaguna:
Bakarrik nago, bakar-bakarrik...
Zuk ondo dakizu
nik bakardadeari beti
bildur izan deutsodana.
Beti ibili naz lagun billa,
senitartean eta lagunartean.
Bakarrik sentitzean,
neure ingurura begiratzen neban,
norbaiten billa ondoan,
billa eta billa...

Orain, urteak pillatzean,
eta buruko uleak zuritzean,
seme-alabak euren gauzetan diardue,
illobak euren bizibidean doaz,
aitita-amamaren premiña andi barik...
Ia sobra ete gagozan gero...

Bizi dodan bakardade onek
lagunartearen gozoa
sentierazoten deust
eta iñondik agiri ez.

Zenbat joandako kontu zaar gogora,
zenbat bidelagunen izenak,
argi ta garbi, banan-banan,
gaur ere neure ondoan bizirik
balegoz lez.

Baina ez... Ez dagoz emen...

Jainko Jauna:

Nire bakardade illun au
argitu ta bete nai neunke gaur.
Egoera miragarria bai,
baiña ez dauka zetan kaltegarria izan.
Egoera triste au be
onuragarri biurtu bear dot.
Nire bakarrik-egote hau
zerbaitetarako eta norbaitentzat
onuragarri izan bear...

Konturatu naz,
inork ez deust denporarik kentzen:
Neure pasadisuak gogoratzeko
egun osoa daukat neuretzat...
joandakoak gaurkoratzeko...
Baina... Zuk, Jauna,
ez dozu nai nire etorkizuna gaurkotzea?

Bein irakurri nebanez,
gaztea etorkizunera begira bizi da.

Eta gu, IRUGARREN ADINEKUOK,
ez al dogu geroko orretara
begiradea luzatu bear
eta gaurkora ekarri eta bizi,
gaurkoa balitz lez?

Ez ete dago ezer niretzat geroago,
zaartzaroko gaillur onen ostean?

Nire bakardade au ez ete da
zeugaz bizi al izateko grazi aldi bat?
Zeu, nire adizkide orren
laguntasuna gozatzeko
eta laster baten,
ezin kontau-ala lagun ta senidez
inguraturik Zeure ondoan
egongo nazala ausnartzeko...?

6

AJEZ BETERIK NAGO, JAUNA

Aalguztidun zaran, Jainko,
beti gazte eta biziz betea,
emen dozu, ajez jotako gisajo au...
Ez daukat gorputzean atalik
zeozetariko min barik.
Leenbaileen konpondu bearreko
kotxe baten antzera nago...

Bein baino geiagotan,
neure buruari begira,
barregureak emon deust,
baina geiagotan
negargurea sentitzen dot barruan
eta negarrari emoten deustat...

Nire oinak ez dira lengoak:
Lagundu egin bear deuste.
Artrosis eta erreumeak jota nago,
ia neure gatxen izenik be ez dakit...

Batetik gota gatzarena,
bestetik junturetakoa...
Begiak be gero ta motelago,
ezin jostorratza erabili,

ezin egunkaria patxaraz irakurri;
liburuko letrak dantzan,
eta ezin lorratzei jarraitu.
Leenago bai...

Belarriak be gero ta nagiago.
Gau askotan ezin loak artu
eta neure kautan badiardut:
Ni zertarako naz ia mundu onetan,
inori lana emon,
eta seme-alabei traba egiteko baiño?

Txotxaturik nago,
beti nabil kezka eta illetaz,
ain denpora laburrean
ain jausita sentitzen nazela.
Baina, ene Jainko Jauna,
zer dala-ta Zuri
ainbeste maina eta illeta jo?
Zertarako alperrik kexatu,
aldatu eziñekoaren aurrean?

Zergaitik naz ain makal,
ain sendotasun eta eroapen gitxikoa?
Itxura danez,
desesperantzan jausteko arriskuan nago
eta geroa benetan illuna agertzen jat.

Zer izango ete da nitaz biar...?

Baina zure ondoan, Jauna,
gutziz baretuten naz:

Egun bakotxari naiko jako berea esanaz
eta biarkoaz ez orrenbeste arduratu.

Zuk bertanbeera itzi ete nozu, ba?

Ez ete daukat Jesus, zure Semea
neugaz?

Ez ete eban berak ainbeste sufridu,
ondo sufritzen neuri erakustearren?

Jauna, arren,

indar geiago eskatzen deutsut,
bear dan pazientzia izan dagidan;

neure gatx eta okerrak,
alaitasuna galdu barik,
eroaten ikasi dagidan.

Ba dira beste batzuk
nik baino geiago sufritzen dabenak.

Eurei laguntzen jarri naitela...

Zure Seme Jesus Kurutzekoa
izan dedilla nire bizitzako

Kalbario-lagun pozemoillea...

ZUK MAITE DOZUNA GAISORIK DAGO

Biziaren iturburu zaran,

Jainko maitea:

Tximistak eraso eta jotako
zugatz baten antzera, natortzu gaur,
barru-barrutik deadarka baten.

Dabiden Seme, erruki nitaz.

Gaisoak erabat mendean artu nau,
gaisoetxean nago,
mediku eta gaiso-zaintzailleak
euren tresna ta guzti inguratu nabe...

Gorputz zati onen
ezkaturik ezkutuenean
zulotuten dabilkit arantza zorrotza,
eta inok ez daki zelakoa dan.

Jauna, erruki zakidaz!

Ene Jainko,
goizero nekatuta itzartuten naz
nire begiak gorriturik,
ezin izan dot lo onik egin.
Are-sakua baizen astun
sentitzen dot nire gorputza.

Au da bildurra, Jauna!
Oso bildurturik nago!
Zer gertatuko ete jat?
Osasunaren egunsentiak
argi egingo ete deust berriro?

Ni ikustera etorriko al zara noizbait,
ene Jainko errukitsu ori?

Ez al zendun bein baten esan
ako: *Jagi ta zoaz?*

Ez al zeuntson esan Lazarori:
Urten kanpora?

Ez al zenduzan sendatu ainbeste
gaiso, legenardun, elbarri...?
Noiz elduko da nire ordua, Jauna?
Noiz kontau al izango dodaz neuk be
nigan Zuk egindako miragarriak?

Badakit, Jauna, txarragorik ba dana:
ezin egonaren estularria.

Osasuna ona da, baina bakea ohea.
Tarteka marteka
ezin egonak estutzen nau,
bakardadeak, ziurtasunik ezak,
bildurrak eragindako ezin egonak...
lurjota izten nabe.

Sarritan triste sentizen naz
ilteko zorian.

Jesus Jauna, bakea bear dot,
Zeuk bakarrik emon daikidazun bakea.
Pozari darion bakea emoidazu,
uste osoz dan-dana
zeure eskuetan itzi ondoren,
datorren bake gozo ori.
Nire osasuna
sendagillearen eskuetan itziko dot,
eta nik, neure aldetik,
osasuna eskuratzeko
aal dodan guztia egingo dot.

Une onetatik aurrera,
arraunlariak, zereginik ez dagonean,
arraunak izten dituan lez,
neuk be dana zeure eskuetan itziko dot
eta zure urak eroaten naun lekura
joko dau nire bizitzako txalupak...
Eroan nagizu, Jauna,
Zeuk nai dozun aldera.

Emoidazu osasuna eta bizitza luzea,
baina ez bedi egin nik nai dodana,
Zeuk nai dozuna baino.
Ba dakit gaur gauean bertan
poztuko nozuna,
emoidazu zure baretasuna
eta bera dot naikoa. Amen.

8

GABON, AITA ONA

Neure Aita Jaungoikoa,
ume txikiak gurasoei lez, dinotsut:
Gabon Aita eta Ama zaitudan orri!
Eguneko zarata guztiak isildu diranean,
ementxe neure oe-aurrean,
Zugana nator, biotz barrutik esanaz:
Zugan sinisten dot, Zugan itxaroten dot
eta nire indar guztiaz maite zaitut.
Aintza Zuri, Jauna!

Betirako joan dan egun onetako
neke, lanak, poz eta atsekabeak,
zure eskuetan izten dodaz.

Onbidetik urten badot,
neukeriazko grinak azpiratu banaue,
gorrotoari eta tristurari
leku emon badeutset,
parkatu, arren, Jauna.
Gaur gauean ez dot nai lorik artu,
ziurtasunaz zure errukia sentidu barik.

Ene Aita,
eskerrak emoten deusudaz

egun guztian zear
zure kerizpe gozoaren gozoz
babestu nozulako.
Eskerrak, bai, ordu guztietan,
ama batek lez, eztalakoan,
baina alakoxe maitasunez,
samurkiro zaindu
eta inguratu nozulako.

Bake eta isiltasun giro gozoak
inguratzen nau orain, Jauna.
Bialdu egizu Bake-aingerua
etxe onetara.
Erakarri nagizu neure onera,
nasaitu eta emon atsedean
nire espirituari,
askatu barruko loturak,
isiltasunez eta onez bete nagizu.

Zure besoetan,
zorionez beterik dagoan
umetxoaren antzera, Aita maitea,
gorde eta zaindu nagizu
lotan nagoan bitartean.
Biar arte, Aita.
Zure izenean, Aita,
nasai egingo dot lo. Amen.

9

**JAUNA, ZERGAITIK ITZI NOZU
BERTANBEERA?**

*Ene Jainko, ene Jainko,
zergaitik itzi nozu bertanbeera?*
Zergaitik itzi nozu bakarrik?
Uste barik, zeru ta lur,
dana jausi jat gainera
eta ez dakit nora igesi,
ez daukat bizitzeko gogorik.
Non zagoz, Jauna?

Gisajo bat,
bazterrera botaten daben lez,
alantxe nago,
ilunak inguratzen nauela.
Nondik eta zelan urten?
Erruki zakidaz, ene Jainko!

Ego bako aingeru errukarria!
Iñora ez daroan
bide bazterrean itxita,
illunpetan galduta...
Non nago ni?
Itsaz-ondoan nago
eta ezin arnasarik artu.

Non ezkutatu da argia?
Eguzkiak argi egiten ete dau?
Dana utsa eta ezereza...
Zer da gero au!
Auxe besterik ez:
gizaki sentitzearen bildurra...
Ene Jainko,
zergaitik ez nozu kentzen beingoz
bizidunen zerrendatik?

Arerioz inguratuta dagoan
uri baten antzera,
estularriak eta tristurak,
garraztasunak eta agolinak
estutzen eta itotzen nabe.
Zelan deritxo egoera oneri?
Itolarria? Bizitzaz gogaitzea?
Ondamendiaren egoak zabaldu dira
ertz batetik besteraino.
Non ete da urteerako atea?
Ba ete dago urteerarik?
Zeu zara, Zeu bakarrik, Jauna,
nire urteera eta itxaropena.

Ez daukat aztuta, Jesus,
Aitaren Seme esaneko orrek,
Jetsemani ortuko gau illunean,

eriotz larriak zenbateraino
estutu zinduzan...

Gogoan daukat
malkoz eta izerdiz lurra bustiteraino,
eriotzako itsaso garratzak
zelan bete eutsun barru osoa.
Baina dana igaro zan.

Neuk be badakit
nire gaua igaroko dana.
Badakit,
Zeuk, Jainko errukitsu orrek,
laino baltz astunok
urratu eta uxatuko dozuzana
eta laster atsegin-eguzkia
agertuko dana.
Arresi lodiok jausiko dira
eta barrio arnasa artuko dot.
Biar bertan bixitatuko nozu
eta nire arimea pozetan jarriko.
Eta auxe esango deutsut:
Eskerrak, ene Jainko!
Dana izan da amets gaizto bat.
Gaueko lokametsa lez,
betiko joan da.
Bien bitartean, Jauna,
emoidazu pazientzia eta itxaropena.

Egin bedi nigan zure borondatea,
ene Jainko ona! Amen.



10

APOSTOLADUT'ZA EGIN NIK...?

Neure Jesus ona,
Apostolu guztien Maixua,
ni, gazte nintzala,
–arrezkero urte mordoa joan da eta
ule zuri txortatxoa
baino ez jat gelditzen–
neure parroki inguruan
ainbat joan-etorri egindakoa nozu:
eleiz inguruak garbitu,
eleiza apaindu eta jantzi
gaisoak bisitatu...
Ez neban uste Eleizea neurea ez zanik.

Denpora luzea joan da...
Ezkondu nintzan eta bereala,
agertu ziran seme-alabak.
Bizitzako burrukeak
lar arduratzen nindun.
Beste arazook ez nebazan itzi,
baina gaztaroko ako berotasuna
galduta euki dot.

Jubilatu nintzanean,
parrokiak niretzat lekurik ez eukala

konturatu nintzan:
Gu, zaarrok ez gaituela kontuan artzen.
Katekesia emon gura,
eta ez nagola gaurko arian.
Ea neuk egin neinken zeozer
ete egoan, baina...
Azken baten, errian eratu zan
irugarren adinekoen klubean
sartu nintzan.

Sarritan, ia egunero, dinot neure kautan:
Nik, ezertarako ez nazen onek,
apostoladutza egin?
Zer egin neinke nik, Jauna,
zure erreinuaren alde?
Zer eskiñi neizu nik zuri?
Eta arritzekoa da
barrutik sortu jatan erantzuna:
Bai, emon neio eta gauza asko gainera.
Apostolu izan naiteke
eta izan egin behar dot! Zelan baina?

Zeuk emon deustazun bizitzagaitik
esker onaren testigutza
agirian eta pozik emonaz.
Parrokiko eleizkizunetan
zeozetan parte artuaz.

Neure familian, aal dodan bestean,
errezua eta eleiz-giroa zainduaz.
Neure ondasunen neurrian,
beartsu ta preminadunei lagunduaz...

Neu baino zaarragoei ta gaisoei
bixitatxoak eginaz,
aal dodan guztian eurai lagunduaz.
Neure gaisoaldiko nekeen
salbaziño-balioa onartu eta agertuaz
eta Jainkoari alako aukeragaitik
eskerrak emonaz.

Beste batzuen aurrean,
eriotzari buruz bakez berba eginaz,
eta ez azken triste eta illuna balitzan,
San Frantziskoren antzera baino,
gure arreba eriotzea onartuaz,
zure etxeko atea zabaltzera
datorrenari fedez
eta gogo beroz erantzunaz.

O Jesus maitea, eutsi nire biotzean
leenagoko su eta gogoari...
Ez itzi amatatzen nigan
gaztetako berotasuna...
Nik Apostoladutza egin?
Bai orixe! Zergaitik ez?

11

NIK INOREN BEARRA DOT...
IÑORK BEAR ETE NAU NI?

Jainko, Aita arduratsua,
beartsuen lagunik onena zara...
Eskailera asko igon dodaz
bizitzako bideetan:
aita, ama, aitita, amama,
birraitita, birramama...
Ondo dakizunez, ez naz umetxo bat...
Aspaldi baten itzi neban gaztaroa.
Gazte nintzanean,
gauza asko egiten nebazan,
orain ez ainbeste,
ezta gitxiagorik be...
Gazte nintzanean,
edozeini laguntzeko prest,
orain, zaartzaroan, beste batzuk
lagundu bear deuste neuri.
Beste batzuren preminean nago!
Ezin naz ibilli...
Ezin naz bakarrik bizi...
Osagileagana be
eroan egin behar naue...
Ez dot ondo ikusten...

Baketsua naz, izatez,
baina enbarazo bat naz
eta ez dot gura nire kargea
inoren lepora bota!
Gitxienez, nire pixua
kendu gura deutset.

Bein baino geiagotan, o Aita ona,
uste izan dot ez ete litzaken obe
beingoz iltea,
ainbeste arazo ez emotearren...
Baina, antza, gurari onetan be
arrokeriaren bat ba dago ezkutuan:
Gatx egin jat neure auleriak onartzea,
inoren mende egotea.
Pentsamentuok burura ekarri
eta kontuak artzen asten naz:
Zelan portau nintzan neu
ako seme-alaba errukarriaz...
Neu, gazte nintzala,
nire aita gaisorik egon izan balitz,
zer egingo neban bere alde?
Ze serbitzu eskeiniko ete neuntsan?
Ondo azi eta ezitakotzat
daukat neure burua
eta bere alde eginalak
egingo nebazala uste dot.

Neure biozkadarik onenak
eskeiniko neuntsazan,
neure ardurarik bizi eta samurrenak.
Ara ba! Ez daigun dana nastau!
Orain neure seme-alaben txandea da:
Euren premiñan nago,
eta euren laguntzak bakez artuko dodaz,
estularri barik.
Orregaitik ezetan be nekatu barik...
Baina...,
naiz ta neu beartsua nazela jakin,
ez ete daukat, neuk be,
eurai ezer emotekorik,
euren serbizioen ordeztu?
Ez ete dagoz, eurak be,
neure premiñean?

Bein, neure alaba bateri,
il egin gura nebala
esan neuntsanean,
berak, begiak malkoz beterik,
mosu beroz josi nindun, esanez:
“Ama, bein be
ez eizu orrelakorik esan”.
Berak eta beste semeak
bear ete nabe, ba?
Nire illobatxoek behar ete nabe, ba?

Nire senar, emazte
edo norbaitek bear ete nau?
Jainko Aita biotzbera,
burua biraka
eta biotza taupadaka dodala,
baietz erantzuten deusut gaur:
eurak be bear nabela!
Gauza askorik ezin deusiet emon,
baina beste gauza asko bai,
emon al daikiet:
nire esker onaren agiria,
nire pazientziaren erakutsi ederrena
neure mixeriak eta ezinak onartzea,
nire aitita edo amama-maitasuna,
ontasuna...

12

**NIRI GAZTEAK GOGAIT
ERAGITEN DEUSTE**

Pazientzi andiko Jauna,
pazientzi-preminan
nagon zaartxo bat naz.
Au da, au, tokatu jakun mundua!
Gazteak senetik be ateraten nabe.
Aldrebes jaiotakoen antza daukee.
Euren musika, izena merezitekotan be,
gogaikarri egiten jat.
Euren itxurea iguingarria.
Batzuk zapatsu, besteak kaskamotz...,
ezin ibili jende normala lez.
Euren janzkerea barregarria.
Leengo baten, nire illoba batek,
praka barriak erosi ta beingoan,
an-emen zuriuneak egin eutsozan,
erdi zuri eta erdi maiztu
emoten ebela.
Gero atzekaldean
ebagi bi egin eutsozan,
eta adabaki bi ezarri egiozala
eskatu eutson gero amari.
Eurak edo geu aldrebes gabiltz!

Euren txotxolokeriak
aspergarri jataz:
neska-mutilek nasteen jabiltzuz.
Ai gure sasoian izan balitz!
Ez ikutu, ez ta urreratu be...

Eta txarren-txarrena zera:
arroputz batzuk direla.
Zeozero esan, itandu
eta erantzunik be ez...
Irri ta barre egiten deustela dirudi.

Beinola..., urte asko dira,
bateri gogor egin neuntson.
Berak auxe erantzun:
"Tira, ba, zaartxoa!
Zeure ordulaurenak jo zaitu ala?"

Zaartxoa ni? Matraileko bat
emon ez neuntsonean...
Ez gogoaren faltaz beinipein.
Beste bein autobusean zan:
Neu baino zaarrago batentzat
lekua izteko eskatu neuntson
kaskajo bateri.
Goitik beera begiratu eustan
eta ezer entzun ez baleu lez...


Eta andik laster erantzuna:
"Orain danok gara bardinak."
Agin-karraskadeak urten eustan...

Burueritxiak dozuz.
Mundua oraintxe amar urte
jaio dala uste dabe.

Aintxinako doiñu
eta abesti ederrak kantetan asi
eta aspergarriak direla diñoe.
Ene Jauna,
emoidazu pazientzia, neure bizitzea
eta bestena be garratzu ez dagidan.
Badakit esan dodan au egi-egia dana,
naiz ta sarritan
euren akatzak andiegi
eta alderdi onak txikiegi egin...
Baleiteke au be, Jauna.
Neu be, alako sasoian...
(noiz izan zan be ia...)
euren antzekoa izan ninduzun,
neu baino andiagoak
zaartzat euki eta ezjakitun
eta ezetako ezgauza zirelakoan.

Jauna,

baretu egizuz nire beroaldiak
gazteenganako begi-biotzak
zarratu ez dagidazan.
Gogaikarri bajataz be...



13

NI EZ NAZ NEURE SUIN-ERRANEN
SERBITZARI

Ene Jainko, ene Jainko!
Jainko maitea...
emoidazu pazientzi andia,
premiña-premiñan nago-ta!
Askoren ustez,
atso-agura pirri batzuk gara,
baina Zuk badakizu ori egia ez dana.
Zer gertatzen dan?
Kokoteraino naukela,
eta trapuzar sentitzen nazela.

Neure ustez,
zerbait interesgarri badinot,
laster botako deuste alakoren bat:
“Zureak egin dau...
Zuk ez daukazu emen parterik.
Arazo ori geuk erabagiko dogu...”
Baina... (eta ementxe erreminduten naz,
auxe pentzatzeaz bakarrik)
noren kontura izten dabez
gero umeak?
Geure kontura, jakina!
Orain ille beterako kanpora ei doaz,

bakazioñoetara-edo...

Gu olako barik bizi izan giñan

eta neke geiagogaz...

Eta nor gero umezain?

Kontuak atera Zeuk...

Ni ez naz neure suin edo erranaren
morroi edo neskame!

Ez dot onartzen, euren komenentzira,
batera eta bestera erabilli nagien,
neuri ezer esan barik, atan be.

Eurak euretara,
olantxe erabagi dabela ta kitto.
Eta ni... euren morroi ta neskame!

Beno, beno...

Alako baten ustuz naz, Jauna!

Baretu naz, barruan neukan dana
esan deusut, Jauna.

Eta Zuri, Jaun orri, ondo al deritxazu
gu jubilatuoak olan jartzeari?
Ez ete zendun Jesus, zeure Semea be,
trapu zaarra lez,
ara eta ona erabilten itzi?

Ez euskun, ba, Berak ako au esan:
"Ez naz etorri serbitzariak eukitera,
Neuk besteak serbitzera baino?"

Eta nik zer? Bide bera ete daroat?

Zergaitik dira nire protestok?

Ez ete naz gero,

beti neure erara, neure martxan

bizi gura dauen zaarkote bat?

Ezetz...?

Txarragoren bategaitik, bear bada:

Beti aintzat artua izan gurako

arroxko bat nazelako urrean,

eta iñoren mende egoterik

nai izaten ez dodalako...

Ene Jainko ona,

barruko begiak idegi gura dodaz,

zer zelan dan jakin

eta alan egiten aalegindu.

Badakizu gu

zure Seme Jesusen jarraitzaile

izan gareala bizitza guztian.

Zaartzaroan be bardin:

besteen serbitzari izan gura dogu

eta inguruko eskabideei

aalik gozoen erantzun:


"Seme, alaba, edo errana,

zoaze bakazinoetara...

edo bestelako jaietara...

etxeaz eta umeez
neu arduratuko naz-eta..."

Jauna, ez naitela ibilli
serbitzari billa,
neuk nori serbidu billa baino.



14

ILDAKO ADIZKIDEEN ALDE

Jesus adizkidea,
bizien eta illen Jauna,
zu, guri bizia emoteko,
berbiztu egin ziñan,
Jainko-indarrez
menderatu zenduan eriotzea.
Zure adizkideak
arri ta zur gelditu ziran
Zu berbiztuta ikustean:
Kurutzean il eta gero,
lurperatu ta gero,
barriro bizturik...
Zu ez zaralako Jainko illa,
betiko bizia emoten dauen
Jaungoiko bizia baino.

Gaur neure lagun izan ziranen alde
erreguka natortzu,
ildakoen alde...
Ainbeste dira, izan be...
Nigaz artuemonan izan eben
eta neugan geratu da
euren gomutea eta irudia.
Euretariko batzuk

ni baino gazteagoak izan ziran,
eta au da nire itauna:
Zergaitik il ziran eurek
eta ni bizirik gelditu?
Ori Zeuk bakarrik dakizu, Jauna...

Euren alde eskatzen deutsut,
sarritan oi dodanez:
Emoiezu betiko bizitza,
emoiezu azken bako atsedeen betea.

Emoiezu euren irabazien saria
eta ez artu gogotan euren pekatuak.
Emoiezu
zure Aitaren arpegi ederra ikustea,
emoiezu
zure Amaren samurtasuna gozatzea.
Emoiezu, zorion betea eta betikoa!

Banan-banan jatordaz burura, Jauna,
eta gogoan dot bakotxa...
euren ontasun eta eskasiagaz,
euren poz eta zoritxarragaz...
euren adiskidetasun
eta zintzotasunagaz...
Nire urteen pixu astuna
arintzen deuste sarritan,

alkarregaz bizi izan doguzan
une zoragarriak gogoratzean...
Agaitik eskatzen deutsut, Jauna,
Zeuk gura dozun egunen baten,
nire billa zatozanean,
barriro be eurekaz alkartu naizula.

Eskerrak be emoten deutsudaz, Jauna,
ez eskatu bakarrik,
Zeuk nire ondoan
ipini zeunstazalako.
Zeuk erakutsi deustazu
euren adizkidetasunaren bidez,
adizkide on bat daukonak
pitxirik ederrena daukala...

Orduan bizitez ikusi neban
zein gozo ta eder dan
adizkideak alkarregaz,
anai-arreba lez, bizitzea.

Eskerrak damotsudaz, Jauna,
eurak izan nebazalako
ondoan euskarri eta lagun
neure premiña-orduetan.
Eurak nire alaitasun eta itxaropen
nire bakardade illunean,

eurak laguntza alaia,
nire larritasunetan
ondoko neure lagun
zintzo eta isillak...

Jesus, Jauna,
ez zaitez aztu nire lagunokaz,
zure ta nire adizkideokaz...



NIRE JUBILATU LAGUNEN ALDE

Nekerik ezagutzen
ezta atsedetik inoiz artzen
ez dozun Jainko ona,
gaur be emen natortzu,
bestetan lez,
Zeugaz berba egitera.
Jubilatu nintzanetik
Zugaz egoteko asti geiago daukat
eta ez dot alperrik galdu gura.

Gaur nire adiñeko lagunen alde
erregutzera natortzu:
jubilatuen alde.
Euren alde eskatzen deusudana
neure alde be eskatzen deusut,
danok gagoz, izan be,
egoera bardiñean.

Orain amabost urte,
noiz jubilatuko nengoan.
Ezer egin barik, trankil bizitzea
zala uste neban orduan,
bizimodurik onena.
Orain konturatzen nozu,

atsedena artzea ondo dagoenarren,
–ondo merezia gainera–
zeozer falta jatala.
Eta bardin nire lagun jubilatuei...

Auxe eskatzen deutsut, Jesus laguna:
Kalean edo plazan
alkar topetan dogunean,
bestetariko zerak erabili daiguzala
agotan eta ez betiko autuak:
“Gu jublatuok txarto gagoz,
gure dirutxuaz zer egin...
gure kontura amaikatxo bizi dozak...
gu ez gaituk inork ikusi gura,
bein botoa lortuez gero...
Gu barik, gauzak txarrago joazak...”

Ori, guzti ori, egia da,
baina ori ez da dana.
Gaur, leen baino,
pentsino obea daukagu.
Gainera geure etxea,
eta bestek zer?

Alan eta guzti be,
nik beti esaten deutset lagunei
gure zaartzaroa eta jubilaziñoa

guretzat apropozko aukera dela,
geure pobretasun,
gaisotasun eta guzti.
Ba dira beste ondasun batzuk,
lapurrak ostu edo zitzak ondatu
ezin daikezanak.
Gogoratu eiguzu, Aita errukitsua,
zure Seme Jesusek
bere burua ezarteko
arririk be ez ebalá izan...
Ez da polita iñoren arrimora bizeitza,
enbarazu egiten dalakoaz
edo bat sobra dagolakoaz...
Baiña apaltasunera etorrita,
beartsuak gara benetan.
Jubilatu askotxo, Jauna,
gaisorik eta ajez beterik gagoz.
Zeuk erakutsi egiguzu
sufrementuak eta oiñazeak
dauken salbamen-indarra.
Ez dagigula alperrik galdu
egoera ori dan probetxugarria.

Irusako egin deuskuela diño, Jauna:
ainbeste urte seguruak ordaintzen
eta oraindino be eskekoarena
egin bear...

Ondakinak botaten deuskuez.
Zeure Seme Jesusen erakutsia
gogoratzen dogu:
*Zoriontsuak negar egiten dabenak,
poztuak izango dira-ta.*

Eta bere Berbea
benetan artzekoa da...

16

GURE ILLOBEN ALDE

Gure Jaun eta Jaungoikoa,
gure seme-alaben Aita,
eta euren seme-alaben Aita,
barriri be emen gaituzu...

Gaurko txandea illoben aldekoa da,
leenengo eta bein
eurekaitik eskerrak emoteko.
Leenengo illobea jaio zanean,
aitita-amamak baino geiago,
aita-ama barriztu sentitzen giñan.
Baina laster onartu gendun
geure lekua:
Aitita-amamak giñala?
Au titulu eder ta gozoa gurea,
eta seme-alaben umeengan
bizitza luzatzen ikustea...!
Seme bat izatean,
antzutasuna menderatu gendun,
ainbat geiago, illobatxoa izatean.
Bata bestearen ondoren,
gaur, urte batzuren buruan,
ze txorta maitagarria!
Ia zenbat diranik be ez...

Gaurko izen modernuokaz barriz,
oztaz dakigula zelan deitu.
Eta gora ta gora doaz.

Batzuk unibertsitatean dabiltz,
beste batzuk ezkongaietan.
Banaka bat,
lumaz janzten doazan txoriak lez.

Bai, gure Aita ona,
benetan biotz andikoa
izan zara gugaz!
Zeuk olantxe gura-ta, guk,
aitita-amamok bizirik eta gazterik
jarraitzen dogu, geure inguruan
sortzen diren bizi barriokin.
Aurrera goaz munduko bideetan,
politikari buruz
edo bardin unibersidadeko
edo ekonomiazko arazoak
eurekaz astintzen.
Jakin, barriz,
Aita Santuak aina dakitsue,
eta itzelak dira
egia biribillak botaten...

Urrengo egunerako

a ze eperdikoa!
Euren dotrina guztiak lur-jota...
Amabost urteko gure illoba bat
marxista agertu zan.
Gaur amazortzi urte daukaz
eta liberala dozu.
Aurrera edo zearretara,
azten doatzuz...

Gure illoba guztion alde
erregutzen deusut:
apaltasunez onartu dagien,
oraindik bide laburra egin dabela
eta gure esperientziatik
zerikasias daukeela.
Eta ez dinotzut arrokeriaz,
geuk be euren onerako
zerbait aprobetxagarri
daukagulako ustez baiño.
Besterik ezean,
familiako oinarri
eta historia gaitue.
Zure Espirituagana
zabalik bizi daitezela.
Egizuz bake-egilleak.
Beartsuen premiñen aurrean
eskuzabalak egizuz.

Gizartearen erdian
zure erreinua jasotzeko
arduratsu eta ekintzaille
izan daitezela.
Eta gogoko badozu,
euren artetik bat edo beste
aukeratu egizuz
misiñotzan edo abadetzan
zeure ordezeko izan daitezana.
Eta onenbestera ezkerro,
aitita-amamokaz be
enamortuak izan daitezela.

NEURE SEME-ALABEN ALDE

Gizaki guztien Jainko eta Aita,
gaur gure seme-alaben alde
otoitz egiten deusut.
Umetsuak izan gara,
eta eskerrak orregaitik.
Onetan zeure antz apur bat daukagu:
Askok lelotzat jo gaitue,
familia ugaria izan dogula-ta,
baina gaur pozik bizi gara
familia onen berotasunean.
Ardura asko sortu deusku,
baina ez poz eta gozotasun gitxi be!
Ez dot uste porrot egin dogunik.

Urak buruz gaiñetik etozala
sentitzen geuntzun sarritan.
Larriune andiak izan doguz,
agorako kopau gozoak
geure buruari ukatu be bai,
umeezagko ardurak
eta premiñak eraginda...

Dana dala,
IRUGARREN ADINEKO bikote onek

gaur, eskerrak emonez...,
eskeko gatoz
geure seme-alaben alde:
zeure Seme Jesusen antzera,
zure Aitatasuna ezagutu
eta maitatu dagien,
zeure seme-alaba leialak lez,
eskutik itzi ez zagiezan
bizitzako bideetan.

Guraso diren aldetik,
Zugan dagoan aberastasunaren
barri jakin dagiela.
Euren buruak zeure ordezeko
egin barik,
zeure maitasun-asmoak betetzen
zeure laguntzaile izanik,
zure doaiak
zintzo erabilli dagiezela
eta ez daitezela
zure bidetik aldendu.
Jakin dagiela zure Berbea
egia, argia eta bizitza dabena,
zure legea on eta zuzena dana,
zure begiradea, barriz,
maite dozuzanentzat
eta maite zaituenentzat sakona.

Billatu dagiela zure parkamena,
inoiz bidetik aldendu badira
eta alkarri parkatu dagitsela,
Zeuk guri, zure seme-alaboi,
parkatzen deuskuzun lez.

Zure Berbea aspertu barik
entzun dagiela, eta gogo onez
bizitzara eroan.
Bizitzako Ogi Santuak
indartu dagizala
betiko bizitzarako bidean.

Gizaki guztion Jainko eta Aita ona,
denporatxoa da
IRUGARREN ADINEAN sartu gareala.
Ia ez jaku arlo andirik geratzen.
Azken baten auxe eskatzen deutsugu:
Gure ondorengoak,
beargin onak diren bestean,
zure maitasun-eskolan be,
punterengoak izan daitezela...

**NIRE FAMILIAK BURUKO MIÑAK
SORTZEN DEUSTAZ**

Jesus Jauna, Kurutzeko Jeuskristo,
ainbeste mesedegaitik
eskerrak emoten deutsudaz,
batez be, neure bake
eta umoreagaitik.
Gaur neure familiaren alde
oiuz eta deiadarrez natortzu:
Zenbat burukomin emoten deustan!

Urtez beterik nago,
urteak sakon markatu nabe.
“Nire zaartzaroan
a ze bakea izango dodan!”
esaten neban leenago,
baina oker nengon...
Semetarik bat banandu egin jat.
Benetan gogorra, triste
eta kaltegarria izan da guretzat...
Tirabirak eta gorrotoa
nire illoben artean.

Oraindino be geiago: Denporea joanala,
gure arteko loturak zabartzen

eta otzitzen joan dira...
Seme-alaben artean tirabirak.
Illobak beste pentzakera bat dakarre
eta gugandik urruntxo ikusten dodaz:
“zaarrokin” ez dabe ezer jakin nai...
Ekonomia-egoerak estutzen gaitu,
eta errua, asarre bizitan,
alkarri bota bear,
gure arteko suerte txarra dala-ta.

Niri neuri, Jauna,
ezer ez eukiteak ez deust ardura,
jateko lain ogi izan ezkerro...
Baina, bakerik ezean,
danak dabiltzuz jo ta su
zer jango, zer jantziko,
zer euki, erosi, irabaziko,
illobira eroango dogun
aberastasun bakarra
alkarri izandako maitasuna
izango dala konturatu barik.

Jauna, pentzakera eta bizikera orrek
zer pentza emoten deust:
euren federik ezak arduratzen,
ni ez ei nago burutik sano...
Gurean Jaungoikoa

gauza guztien gainetik
maitatzen ez erakusteak
min emoten deust.

Ez dot aspergarri izan nai,
baina alkar ulertu ezin orrek
arduratan nauka.

Bakezkoak egiten, barriz, nagi,
senitarteko oztasuna eta
bata bestegaitik txarto esaka ibiltea
mingarri jat benetan, bai ta
Zuk errukira deitzen gaituzula
aztuta dogula ikustea.

Jesus, nire Jaun eta adizkidea,
Zeuk poztu nire biotz mindu au:
Emoidazu besteei laguntzeko indarra,
ezarri nire familian
ontasunezko sentimentuak,
egizu, arren, zure jarraibideak
maitasunezko alkar-bizitzara,
eroan gagizala.
Erakutsi eiguzu
zure Berba santuaren sendotasuna,
gure gatx guztietatik osatu gaizan.
Eta bizi nazan artean,
emoiozu zaartxo oneri, illeta barik,
guztia eroateko grazia...

ĨNORK LAGUNDU BEARRAK
MINDU EGITEN NAU

Jesus adizkide,
makalen lagun zintzoa,
urteak itzi deusten arrastoaz,
ajez beterik nago,
beti laguntza-premiñan,
gero ta gitxiago
baliatzen naz bakarrik,
beti iñoren mende:
neure pazientziaren
eta besteen errukiaren
aprobaleku ederra.
Orrexegaitik galtzen dot
sari neure umorea,
nazan urria ikusita.
Bein baiño geiagotan
ez dakit ze bide artu bear dodan,
okerrekoan jausi naitekela:
betaurrekoak
non itzi dodazan be ez,
gauza bera birritan artu, edo
edozertan jardun eta beingoan,
aria galdurik, aspertu...

Leengo baten edontzi bat
artu neban ezkaratzean
eta, gogor be ez baina,
agirika egin eusteen:
Garbiketak egiteko
beste batzuk dagozela-ta,
ni “geldi ta trankil” egiteko...
Ez dabe ulertzen
niretzat gogorrena ezer egiteko
kapaz ez izatea dala.
Eta zeozer egiten asi orduko,
bear ez diranak egiten dodaz...

Iñork lagundu bearra
niretzat dan umillagarri...!
Arroa naz eta ez dodaz onartzen
neure mugak eta ezinak.
Beti nabil arrokeritxoak joten:
“Nik egiten nebazanak...
orain ogei urte!
Beti daukat agomiñean
erronkaren bat:
“Urte batzuk gitxiago baneukaz...
orduan ikusiko leukee
ona zer dan...”

Baina kontua zera da:

Ez urte batzuk gitxiago,
urte asko geiago daukadazala!
Beste batzuei leku emonaz...,
bidea libre itzi bear dodala
apaltasunez onartu bearra daukat.

Joaneko sasoi ederrean
beste batzuen euskarri
izan banintzan be,
orain ostera, beste batzuen
laguntza bear dodala...

Bizitzaldi bakotzak
bere bokaziñoa dauka...
Leen urkoari eziñetan
lagundu baneuntsan,
orain neure mixeriak agertu bear,
beste batzuen errukarri...

Txitean pitean esaten dot:
“Ez dot izan nai inoren enbarazu”.
Baina ez ete da ori
ondo diximulatutako
arrokeritxoren bat?
Makalik egonda be,
ez ete dot esan gura beste au:
“Nik ez daukat zuen premiñarik?”

Gauza bat da, bear ez dala,
urkoaren pazientziaz eta ontasunaz
aprobetxatzen ibiltea
eta beste bat, umetxo bat lez,
laguntza eske,
gurasoei deika jardutea,
berez zerbait egin
edo ibilli ezin dauenean.

Jesus, Jauna,
emoidazu bear dodan laguntza
eskatu eta onartzeko
umetxoaren apaltasun
eta xinpletasuna.

**BIZITZA MAITE DOT
ETA ERIOTZA DAUKAT UR**

Emen nozu, Jesus,
bizitzaren eta eriotzaren Jauna.
Bizitza maite dot, benetan maite be!
Zeuk dakizuz nire urteak.
Niri aztu egiten jataz...
Neure egun-minutoekin
lar lotuegi nabil sarritan.
Txarra ete da au?
Ni baiño gazteagoak
adarra joten deuste:
“Zer? Bi milla urteko zorionak be
jaso gura dozuz ala?”
Eta nik, betozko ta guzti,
baietz erantzuten...

Ez nabil neure burua engañetan.
Nire indarrak, Jauna,
beerantza doaz, eta alako baten,
ondoa joko dot...

Orregaitik-edo gogor be gogor
erantzuten deusat
geratuten jatan bizitza apurrari.

Eriotza ur dago...,
baiña orregaitik ez dot
zetan bildurrez larritu.
Ezin dot ukatu, Jauna,
mundu ezezagun orren aurrean
sarri estularria eta
bildur-ikarea sentidu dodana...
Bestalde, ez da orren ezezagun
mundu ori...
Zeuk emon deuskuzu aren barri.
Zeuk emoneko itxaropen
berbearen aurrean,
Zeuk egindako promesen aurrean
desagertzen da apur bat bildur ori...
Zu, Jesus, zeure etxean
guri bizilekua
prestatzera joan ziñan.
Zuk zeure Erreiñua,
eskeiñi zeuntsen
gurutza lepoan
jarraitzen deustuenei.


Ez dakit zer jasoko dan
joan bear dan orduan,
lotura danak eten
eta Zugana joatekoan.

Baleiteke baretasunik-eza izatea,
edo neure lagun kutunak
agurtzean, negarrari emotea.
Edo, ainbeste denpora
alperrik galdu izanaz,
eta nire doaiak alperrik
gordeta euki izanaz
damaturik egotea...
Bai, bildur naz...
Esku utsik zure aurrera
agertzeko bildur...
Baina ba dakit, ostera,
zure eskuak ondo beteta
dagozana eta zeure ugaritasunetik
emongo deustazuna.

Jesus ona, auxe be ba da:
Nik bizitza maite
eta eriotza ur eukitea.
Geitu, arren, nire fedea
eta itxaropen apurra.
Egizu zeure maitasunaz
maitatu dagidala.
Sendotu, arren, nire leialtasuna.
Umetxoa bere amaren besoetan lez,
ni zeureetan nasai gelditu naitela.
Ez dagidala aztu

Zuk zure lagunak egundo be
ez dozuzala aztuten.
Zure arlo eta altxorra erostearren,
daukadan guztia saltzeko prest nago.
Zeure erruki andiak
artu nagiala, Jauna!

Onela jartzen banaz,
gertu nago, Jauna...
*Zatoz neure billa,
nai dozunean...*



ZAARTZAROA UMETZARORA BIURTZEA?

Jesus, lagun ona,
umeen eta zaarren laguna,
nik neugandiko eta besteengandiko
esperientziz dakit
gu eta umeak alkarregaz
ondo konpontzen garena.
Au olan dala, bitik bat:
edo umeak zaarren antzeko dira
edo gu, zaarrok, umeen antzeko.
Azkenengo au deritxat zuzenago.

Ume-antzeko izate onek
sarri alderdi okerrak
eta ezkorrak euki daikez:
geu be, umeen antzera,
egoistak garala;
ondo ezi bako umeak lez,
dana geuretzat gura dogula.
Eta zelako asarre ta maiñak,
ostikada eta garraxiak,
bere gustoko gozokia
edo jostailua emon ezik...
Geuri be berdin samar askotan:

gure buru nekatuak ezin ulertu
zergaitik au olan edo alan dan...
Anaitxo bat jaio, eta anai
nagusiaren zeloak...
Geurera etorri dan urliari
au edo ori eskini deutse
eta niri ezebez...
Alakoetan martiri-burua
egiten dogu beingoan:
"Inok ez gaitu maite,
inok ez dauko gure akordurik,
onenean baztartzan gaitue...
Guk egin ez
eta geuri errua botaten...
Geuk egin
eta agirian ipini bear..."

Bai, geure urteak eta guzti,
umearora itzuli batzuk
egiten doguz...
egoismoz eta txaplatakeriaz
beteriko umearora...

Baina ume antzeko izate au
zerbait sakonagoa da.
Ez da umearo soil bategaz
dogun lotura utsa,

santu-plantak alde batera itzita.
Umeak etorkizun andia
eta joandako laburra dauke.
Guk oster, joandakoa luze
eta etorkizuna labur...
Umeen osagarri gara!

Kristau lez berba eginda,
ortxe dago
umearo espirituala,
Jainkoagazko menpetasun gozoan
eta lagunekiko
artuemon garbi eta ongurakoan.
Umearo barri au
apaltasunez eta esker onez
artzeko erregalua dozu.
Ez gara gura aina indartsu...
Ez gara buruari eusteko lain...
Nonbait umetxoen antzeko gara.

Ume izan nai dogu
xinpletasunean,
umekeria bako ume onak,
jolas-egarran ume.
Bizitza seriotazunez artu,
baina ez esi barruan
zarratuta egoteko,

eguneroko gauzatxoekaz
ez poztuteko moduan.
Umeak bere-berea dau jolasa
eta jolasteko
gauza gitxi dau naiko:
trapuzko pelota bat,
zalditzat daukan erratza...
eta zelango gozamina!

Ene Jauna,
emoidazu ume izateko grazia,
umeak lez, zeure besoetan
seguru eta bakez
lo egiteko...



ZAARTZAROA JAKITURIAREN ETA ITXAROPENAREN ALDIA

Gure Jainko Jauna,
Zu gure itxaropena eta atsedena.
Gu zaartxoak gara,
dotoretasunez-edo,
irugarren adinekoak
deitzen deuskue...
Urte asko daroagu alkarren ondoan.
Bizitzak ondo aprobatu gaitu,
bai onean eta bai txarrean...
Batera egin dogu barre,
batera negar...
Sarri alkarbanandu bear izan dogu,
larritasun eta estualdia jasan
ezinaren aurrean.
Baina urteen ugaritasunak
esperientziz jantzi gaitu
eta gaur ez gara
kikara baten itotekoak,
naiz ta jubilatatu errukarri
batzuk izan...

Beste begi batzuekaz
Zuri begiratzen ikasi dogu

eta, orregatik, gaur
beste gusto bat
artzen deusugu, Jauna.
Gazte giñala, zure anditasunak
eta indarrak arritzen ginduzan.
Gaiñera, gauza asko geuk
geuretara egiten genduzanez,
ez gendun Zuri laguntza
eskatu bearrik sentitzen.

Orain, geure indar apurretan
konfiantzarik ezean,
zure beso indartsuetan,
zure errukizko babesean
dogu uste osoa...
Zeure eskuak eutsita bizi gara,
zure begirada maitekorrak
lagunduta...

Bai, gure begiak
bat egin dabe zure begiekaz
eta lilluratuta geratu gara.
Bein baiño geiagotan
alkarrizketan asten gara
eta gero errezura joten dogu.
Eta otoitzaren ondoren,
gure arteko isil aldia dator,

isil aldi bete-betea:
an gozatzen doguz
zure samurtasuna, zure ontasuna,
zure pazientzia...
Gozatzen... Ondo esanda dago,
izan be, orixe da-ta,
gogozko ezaguerea.
Ez da arazo edo sekreto bat
buruz ulertzea,
ez eta, zerbaiti ekin eta ekin,
burutaziño batzuk erabiltzea...
Bero-beroan eta gustora
pentzatzea baino...

Zaartxoak gara, Jauna,
semeak eta illobak daukaguz.
Lagun asko joan jakuz
urtez beterik.
Gu emen geratu gara.
Zertarako gero? Zeure zain egoteko?
Urte askoren esperientziz,
ardau zaarraren antzera,
zeure ontasuna gustatzeko.
Gero ta geiago
gustatzeko gauza gara,
Zeu gustatzeko, Jauna...

23

**ETA ZAARRETXE BATERA
JOANGO BANINTZ?**

Neure Jesus ona,
sufritzen eta
bakarrik dagozanen laguna,
orain asko ez dala,
neure *biotz erdia* galdu neban.
Zeuk eroan zeunstan,
eta geien bear nebanean,
eroan be...
Urteak makaldu nauenean,
bere indarraz nire aulerian
lagundu bearko ninduela.
Ez deutsut konturik eskatzen:
Zuk onena nai dozu guretzat
eta ba dakizu zein den
Aitaren borondatea.
Baina kontua auxe da:
bakarrik geratu nazala,
seme-alaba ta guzti,
baina bakarrik...

Iñoiz esan be egin deutsut
erdi asarrez:
"Naiago neuke iltea

eta mundu au beingoz iztea"...
Astun egiten jat benetan!
Baina sarriagotan
itzi naizula eskatzen deutsut
eta, bizitzari lotuta,
pozik sentitzen naz...

Au bai sinisten dodala:
karga bat nazala,
zaar gogaikarri bat,
eta besteak nigaz
poz andirik ez daukela...
Egia esan, zelan edo alan,
neure seme-alabak zaintzen nabe,
baina niri begira egoteko
denpora larregirik ez dauke,
bai zeregin asko.
Eta zereginen artean
zaarrogazko arazoa
ez da beinena izaten.
"Au ez da zuzena!" –esan
eta asarretzen naz sarritan,
eta tentaldialakoa sortzen jat:
*"Zer zaarretxe batera
joango banintz?..."*

Ikusten danez, gaur zaarretxe

askok izen politak daukez:

Etxea... Atsedeen-etxeak...

Irugarren edadekoen klinikak...

Baina izatez,

ETXEA ez dan "etxeak" dozuz.

Familia ur-urran eukita be,

bakarrrik sentitzen nozu...

Bear dodan guztia emonda be,

zaindu barik sentitzen naz...

Zer izango ete litzateke

"etxe" orreitan?

Ez, ez dot neure etxetik urten nai,

naiz ta atsedeen-leku orreitan

dotoretasun geiago

eta laguntza bereziak euki.

Ez dot gura atsedeenik!

Oraindik zeregin asko daukat!

Nire illobak bear nabe!

Asko erakutsi eta eskeini

daikiek oraindiño:

Oitura eta usadio zaarrak,

familiaren historia,

patxadaz eroandako

zaartzaroaren testigutza...

Ez daukat illeta joten

alperrik galtzeko astirik!

Jesus Jauna, arren,

ez daidala neure etxetik urten

zeurean sartu arte...

Egizu nire presentzia

bete-betea eta pozgarria

izan daitela nire etxean

eta lagunartean...

**ORAIN URTE BATZUK
ALARGUN GERATU NINTZAN**

Ene Jainko Jauna,
biotz minduen poza,
orain urte batzuk
alargun geratu nintzan...
Zeuk bakarrik jakin daikezu
zer jazo zan nire biotzean.
A zan bakardadea....

Zeuk dakizu zein ona zan
nire bizilaguna.
Dana giñan bata bestearentzat.
Zenbat zertxo alkarri...
Izan genduzan geure artekotxoak,
baina zenbat egun, ordu, urte
gozo ta maitetsu alkarregaz...
Aren utsunea ezin dot bete...

Bera joan danetik,
egunak illak, illun
eta astunak niretzat.
Ba nenkian betiko ez giñana.
Orain konturatzen naz
eriotzeak erdi-prestauta

aurkitu ginduzala.
Beti "biar eta biar"
izango zalakoan,
guretzat ez zala
olakorik etorriko...
Baina etorri zan, bai,
eta braustadan etorri be.
Leenengotan, uste nebanez,
ezingo neban eroan
ain golpe gogorra,
ezingo nintzan bizi bera barik,
baina bai, bizi nozu...

Miñez, baina emen nago, Jauna...
Bera zan nire poza,
sendoa izanik be, samurra zendun,
itxura baten serioa,
baina gero, aren irribarrea...
Oraintxe be zerutik
alantxe dakusadala nago...

Ez, ez dira aldi danak ain onak izan,
baina berak ez eustan egundo uts egin:
besoz beso jo gendun
aurrera bidean,
beti batera, beti alkarregaz!

Bere alde otoitz dagitsut, Jauna.
Ziur nago, berak be,
nire alde erregutuko deutsula:
kristau zintzoa zan,
eguneroko gorabeeretan leiala.

Kementsu, barriz
eta eroapentsua benetan...

Bera ni baino sendoagoa zala
esaten eustan sarritan...
Ez dakit, baina bai ziur
bere premiña andia daukadana!
Dana dala, neure Jainko ona,
barriro alkartuko gaituzulako
uste sendoa dot Zugan...
Eriotzeak be ezin leike banandu
eta desegin guk alkarri
deutsogun maitasuna...
Zugan uste osoa daukat

25

EZ NAZ GAUZA EZERTARAKO BE...

Jesus Jauna,
Zeuk dinozunez,
mundua salbetako gauza ez diranak
aukeratzen dozuz,
arroak lotsatzeko
eta gizakiok garan utsagaz
Zuk egin nai dozuna agertzeko.

Ona ba... nigaz,
ain gauza gitxi nazan onegaz,
ezer egin al ete zeinke, Jauna?

Orain urte batzuk arte,
jardun eta jardun,
ez nintzan nekatzen.
Zerbait ba nintzan orduan:
kalera urten eta erosketak egin,
etxean ba neunkan neure zeregina.
Baina orain... zer jazoten jat?
Egun batzutan
ogean geratuko nintzake...
Aztukorra naz.
Lagundu baino, traba geiago
egiten dot, antza...

Irakurri nai eta aspertu,
telebistari begira jarri
eta begiak nekatu...
Joan-etorri batzuk egin gura
eta oinak mindu...

Zaarrok ezertarako balio ete dogu?
Ba ete dago lekurik guretzat?
Gure lelokerientzat?...
Bein ezetz, bein baietz, uste dot...

Alan be, Jesus maitea,
ezin dot pot eginik gelditu,
ez eta, eten barik,
illeta joten jardun,
neure ezinak iribiatzen.
Nazan baino sendoagoa
izan naitekela uste dot,
eta neuk neutara aurkitu,
irugarren adineko neska mutikook
munduan gaur dogun egitekoa.
Geu be ba gara zeozer
eta zeozertarako...
Gutaz ederto berba egiten dabe.
Gero klub geiago sortu dira
gure "kuadrillearentzat".

Ortik atera kontuak,
ba dala guk zerbait egin daikeguna
eta egin bear doguna.
Ba da lekutxo bat
gure adiñekoentzat.
Eta ezertarako gauza ez nazela
badinot be, gitxienez,
besteak lagundu
eta serbidu nagien, gauza naz.
Neuk be, gazte nintzanean,
amaika bider lagundu neuntsen
zaarrei eta ezinduei...
Zergaitik ez onartu, neuri be
beste batzuk orain lagundu daisten?
Ez ete daukat onetan,
umildade-itxuran,
arrokeritxoren bat gordeta?

Jesus Jauna,
Zuk azkeneraiño serbidu
zaidazala nai dozu.
Au esatea eta zeozertarako
balio dodala esatea bat dozu.
Bestelan zelan nik Zu serbidu?
Zuretzat, Jesus,
danok gara baliogarri,
neu be bai...

ZAAR BAT NAZ

Jainko, ene Jainko,
zaarrak maite dozuzan Jainkoa,
bein San Agustiñen arakoa:

Zu danetan gazteena zarala
entzun neban.

Ori olan dala, zelan ulertu gero
Zu urte askodun aitita bat-edo
zaralakoa?

Ez ete dau esan gura:
batean zaar eta gazte zarela?

Ni *persona nagusia* ei naz.
Bizkarrean urte pilla bat daroagunoi
olantxe deitzen deuskue.

Eukitez, etorteko diren baino,
joandoko egun geiago daukaguz.
Aldikada batzuk onak izan doguz,
beste batzuk ez ain onak...

Leengo gauzak darabilguz
sarritan gogoan.
Egia esan, ez dogu izaten
leenengo kontuak erreparatzeko

gogorik sarritan....

Naiz ta larogei urtegaz joan,
gazterik il bear dala dino
neure abade lagun batek...
Auxe bai egia galanta!

Izan be, zaartzaroa
geiago da barruko giroa,
beste ezer baino.
Auxe uste dot neuk be, Jauna.
Ogei urtegaz bat zaar izan leiteke
eta gazte, irurogei urtegaz...

Begira zelan eta noiz
konturatu nintzan orretaz:
Albiste au irakurri neban bein:
Kotxe batek jota,
irurogei urteko agure bat il da.
Irakurriala, barrua berotu jatan
eta prensako zuzendariari
eskutitz gogorra bialdu neuntsan.

Nik une orretan
irurogei urtetik gora neunkazan
eta ez nintzan *agura* sentitzen.

Dana dala, ene Jainko maite,
zaar eta beti gazte izan-asmo ori
ezelako arrokeria
edo umekeria-usainik barik diñot.
Urteak astun egiten,
gero eta astunago,
egiten jatazala diñotsut.
Ba dakit zaarra nazana
eta barriro leengora
biurtu ezin nazana.

Nire bizitzaren gaillurra
ortxe-ortxe begibistan daukat.
Laster eldu nai neunke
bertara eta zeru orreri oratu...
Neure bidearen azkenean
bakez eldu gura neunke.
Ez gero, bizia maite ez dodalako.
Bakez eldu Zugana, Jauna,
maitatu eta maitale...
familia barruan,
zure izen santua ago-biotzetan
dodala, Jauna...

DIÑOENEZ, ULERTU-EZIÑEKO A NAZ

Entzun, ene Jainko,
Jainko ona, Jainko santua:
Leengo baten goiak eta beeak
jo nebazan.
Diñoenez, ni ulertu-eziñekoa ei naz...
Entzunaz bakarrik, senetik urtenda,
suak artu nindun...
Zer uste dabe mokoti alako orreik?
Geroago baretu eta astiro-astiro,
neure kautan pentzatzan asi nintzan,
neure buruari irusako egin barik:
Ez ete egozan gero eurak zuzen,
nitaz au ta bestea esatean?
Neu be ez naz ba sarri konturatzen,
inork esan barik, neu neutara,
nire abildadiak beerantza doazela?

Beti kontu bardinak esaten
diardudala dinoste,
beti betiko barriketak eroan eta ekarri...
Eta egia da: sarri aztuten naz
au eđo ori leen be
esanda daukadala.

Beti neureagaz urten
nai dodala dinoste,
ume mainoso baten antzera
agertzen nazala.
Eta egia da: ez dodaz artu nai
esaneko medizinak,
ez eta osagilleak agindutako
errejimena egin be...
Kotrara sarritan,
iñok ikusten ez nauen baten.
Neurea egin eta kitto!
Bai... Neu be ez naz
erreminta ona...

Beti kezka eta protestaz
nabilela dinoste,
ezegaz be ez nazala konforme.

Eta egia da: neure suin edo errana
asarrez ipinten dot
eta neure illobei, barriz,
erremuskada bakotxik...
Eta seme edo alabari sarri ekin:
"Ez dakizue umeak azten be."
Ari ta oneri kontsejuak emoten,
maixu-maistrarena egiten dot,
naiz ta iñork ez eskatu...

Marmalari ta barritsua
nazela dinoste,
txarra eta ona ebazten jueza...
Eta egia da: nire bizilaguna
trapuzarra lez darabilt sarri,
larregi eskatsen deusat,
zentzun bako eskabideak egiten.
Leengo baten zeloak erreta be
agertu nintzan...

Au orrela bada,
zer egin neinke, Jesus ona?
Neure miseriak ezagutzeko, arren,
emoidazu umiltasun geiago,
neure inguruko lagunentzat
ez naitela orren astuna izan.

Egia esan, ez naz
orain urte batzuk nintzan-langoa,
baina emoidazu samur eta zabalago
izateko grazia eta argitasuna,
urkoagaz zuzen eta errukitsuago
izateko biotza...

Auxe eskatzen deusut, Jesus ona:
Neure txarkerien gurutzea
tristura barik
eroateko argia eta grazia.

28

**OGEI URTE BANEUKAZ,
IKUSIKO LEUKIE...**

Ene Jesus,
neure Jaun eta neure Jainko,
ogei urte baneukaz,
ikusiko leukie...

Orain ajez beterik nago
eta gauza gitxirako naz,
baina, arrokeri barik esanda,
ogei urte baneukaz,
a zelako erakutsia emongo
neuskioen umekote onei...
Areik bai denporak, areik!
A lanerako indarra eta adorea!

Zuk badakizu orduko bizimodua
ain erreza ez zana.
Eta gaurko mutikoak kexu dira...
Ogei urte areik baneukaz...
Baina, egin bai gero?
Bizitzako unerik ederrenak
alperrik galduaz...,
ez ete litzakidan leengorik jazoko?

Ara, neure biotzeko Jesus laztana,
ez daukadazan urteagaitik
zertarako illetarik jo?
Zertan ibili, joan diran
eta etorriko ez diran urez
andaparea bete nairik?
Ez al da obe, buru belarri
arlorra jo eta emen eta gaur
ea zer egin neinken ikusi,
lepoan daroadazan
ainbeste urte eta guzti?

Baleiteke gaur,
ogei urte neunkazala baino,
geiago egitea. Gaur elduago nago.
Munduko gorabeerez gaur
orduak baino geiago dakit.
Onezkero niretzat ez dago
gauza barririk.
Ez diñot arrokeriaz
edo dana dakidalakoan,
gero ta gitxiago dakidala
dakidalako baino...

Orregaitik nator uste osoz
zure eskuetara,
neurez makal eta gisajo nazalako,

neu baino geiago direnei
umiltasunez begiraturik,
neure oiñaze-miñak
pazientziaz sufridurik,
zure Kurutzeak damostan argitasunaz
eta zure beso indartsuak
nire ezereza jasoko dabelako
itxaropenaz,
nik baino suerte ohea izan dabenen
inbidirik euki gabe,
Zuri, Jesus ona,
eta ainbeste urtetan
lagundu deustenei
esker ona agertuaz...

Au dana egin ezkerro, Jauna,
ez dot zertan illeta joten ibilli.
galduneko ogei urte arekaitik,
bizi al izan dodazalako,
Zeuri eskerrak emon baino.
Gaur be, ainbestegarren urtean,
Zeu goratu eta Zeuri
eta ainbeste urtetan
lagundu deustenei
eskerrak emoteko be ba naz-eta.

JAUNA, NIRE ETORKIZUNA ZER?

Jauna, nire gaur eta biarkoaren
Jaun eta Jabe bakararra,
Zuk ondo dakizu
nik zenbat urte daukadazan...
Beti bizi izan naz itxaropenaz,
biarkoaren ardura andi barik...
Egun bakotxak naiko dau
bere ardurea!
Baina orain egunak motelago doaz,
orain azkena *urrago ikusten dot*.
Ez nau estularritzen,
baina etorkizuna illun dakust.

Batzutan kezkaz nago...
Seme-alabak laguntzen deuste.
Ekonomia aldetik be ez naz
bakarrik biziteko lain.
Okerren bat jazoko balitxakit,
artuko ete leukee nire ardurarik?
Izango ete neunke joan arte
ostaturik neure familian?
Ez ete naz izango eurentzat
traba gogaigarri ta astunegia?
Ba dakit maite nauena, baina...

zenbat *baina* sortzen diren
nire buruan!

Egun asko ez direla,
ardura onexek itzarrik
euki nindun gau osoan:
Badakit, ondo jakin be,
okerrik ezin jatana jazo,
zeure seme-alaba nazenez,
zeure eskuetan nagolako...

Itxaropen geiago bear dot, antza,
nire indar eta aalegin guztiak
zure beso sendoetan itziaz.
Baina sarritan ezin dot, Jauna.

Makal sentitzen naz,
bildurak eta kezkak
barruko indar apurrak be
jan egiten deustez.

Zer izango da nitaz biar-etzi, Jauna?
Nik ez daukat erantzun ziurrik.
Zuk bai, ba dozuz erantzun ziurrak.

Nire geroa jakin ezina jat...
Nire bizitza abentura bat...
Non edo zelan amaituko danik be ez.

Baina ba dakit, Jauna,
niretzat etorkizunik ba dana
egunon amaieran.
Zerumuga ikututen dauan egun ori
ziurtasunez ikusten dot.
Ba dakit jausten itziko ez deustazuna,
badakit bakezko zero ederra
niretzat gorderik daukazuna.
Dei egin deustazu
eta nik erantzun egin deustut.
Zuk emondako berbea
eta egindako promesak
benetan sinisten dodaz.
Ez entzungor egin, Jauna, nire deira.
Eta au olan izanik,
zer ardura deuste beste guztiak:
nire aje eta ezinak,
bideko okerrune guztiak?



30

EZ NAGIZU ESKUTIK ITZI, JAUNA

Jauna, on samurra zaren Jainkoa,
gero ta andiago ikusten zaitut,
gero ta ederragoa ta maitagarriagoa
sentitzen zaitut barruan.

Ez dago berbarik, ez pentsamenturik
Zu nor zaran esatekorik.

Zu nire bizitzaren egunsentia,
arratsaldea eta elburua zara.

Entzun eidazu nire otoitza:

• Zaartzaro baketsu eta gozoa
eroateko grazia

–emoidazu, Jauna.

• Zaartzaro eldu-zimurrean ere
Zure azkenbako ontasunaren
testigu izateko grazia

–emoidazu, Jauna.

• Beti besteen onari begira
dagoen zaartzaroko grazia

–emoidazu, Jauna.

• Umetxoen kantuz eta kontuz
beteriko zaartzaro-grazia

–emoidazu, Jauna.

• Neure kolkoan katigauta,

illetaz beteriko zaartzarotik

–librau nagizu, Jauna.

• Zeure errukiz parkatu izaniko
leengo okerkerien kezkatik

–librau nagizu, Jauna.

• Une bakotxa gozatu barik,
beti leenari begira
minez dagoen zaartzarotik

–librau nagizu, Jauna.

• Zalantzak astinduten banau,

–argitu nagizu, Jauna.

• Eriotzaren urtasunak
ikaratzen banau,

–baretu nagizu, Jauna.

• Gaisotasunak joten badau
nire gorputza,

–sendotu nagizu, Jauna.

• Nire biotza bakardadeak
tristatzen badau,

–bixitatu nagizu, Jauna.

• Bat batera, edo ta astiro,
eriotza baletorkit...

–Ez ni zure eskutik itzi, Jauna.

Onartu, Jauna, oraindik biziteko
emoten deustazuzan urteak;

egizu Zeu serbitzeko eta al dodan
on guztia egiteko izan daitezela.
Biztuteko eta Zeugaz bizi izateko
itxaropenak argitu dagiala
nire bioztxo au azken arnaseraino,
Zeuk sortu nozu-ta, Jauna.

31

ARTU NAGIZU, JAUNA

Jesus, Jauna,
adizkiderik onena,
artu nagizu oso-osorik
nazan guztia:
daukadana eta egiten dodana,
pentzitzen eta biziten dodana.
Artu nagizu, nire espiritua
Zeugaz bat egin daiten,
biotz barrenean
Zeu bakarrik maite zagidazan.

Artu nagizu zure biotz onez,
ni osoan zeuganatuaz.
Artu nagizu zeure samurtasunez,
zeure gerizpean babestuaz.
Artu nagizu zeure maitasunez,
Zeugaz osoan alkartuaz.
Artu nagizu,
ene Salbatzaille orrek,
neure naigabe eta alaitasunean,
nire bizitzan eta eriotzean:
Kurutzeko gau illunean
eta Biztuerako betiko egunean.

Artu nagizu zeure indarrez,
Zeuganaiño jasoaz.
Artu nagizu zeure berotasunez,
Zeugandiko sugarrez kixkalduez.
Artu nagizu zeure anditasunez,
zure itsasoan osoro ni murgilduez.
Artu nagizu zure ongurean,
zure ondoan lan egin daidan.

Kristo, ene Jaungoiko errukitsua,
artu nagizu Zeuk nai dozun
eta dakizun lez.

Artu nire esku dagoan guztia;
artu deustasuna ez iñoiz biurtu.
Egun Andi aretan
nik Zeu artu eta betiko
neugan euki al zagidazan.

32

ZURE ESKUETAN IZTEN DOT DANA,
JAUNA

Jauna, ene Jainko zintzoa,
zure eskuetan izten dot
neure burua eta nazan dana.
Ontziggilleak buztinea lez,
egokitu egizu Zeuk
nazan buztin apur au:
Emon Zeuk nai dozun itxurea
eta gero, nai badozu, zatitu.
Zeuk agindu eta zuzendu dana:
Nik zer egitea nai dozu?
Zer nai dozu nik ez egitea?
Txalotua edo baztertua,
arerioz inguratua,
ezulertua edo txarto-esaka erabilia,
poztua edo mindua
eta ezertarako gauza ez dana.
Zure Ama Mariaren antzera
auxe bakarrik esan gura deusut:
Egin bedi nigan Zeuk nai dozuna.

Emoidazu maitasunik bikaiñena:
Kurutzegaganako maitasuna,
ez neu zapaltzeko edo arrotzeko

beste diren kurutzeak,
gogoko ez jatazan
eguneroko gurutze txikiak baiño.
Egunero nire aurka datozen
kurutzetxoak:
bakardadean lur-joazoko nabena,
ez aintzat artu eta egoera txar
eta biotzaren isiltasunean
baztertzen nabena...

Orduan, neuk igarri ezta be,
orduantxe jakingo dozu, Jauna,
maite-maite zaitudana.
Eta, beste barik, ori dot naiko.

33

ZEUGANA NATOR, AMA MARIA

Ama ona, Jesusen Ama
eta neure Ama,
bizitzako burruka onetatik
gutziz nekaturik nator:
zaartzaroko ajez beterik,
batez be, lurjota barrutik.

Ondo dakizu egoera onetan
dana onartzea gatxa dana.
Uste andia gendun
eta ustel urten deusku.
Ondo egin ondoren,
erantzun gaiztoa jaso.
Makal eta gaiso aurkitu
eta pozgarririk ez inguruan.

Zugana nator, ba, Ama samurra,
nire barruan ibilli-eziñez
umetxo bat darabilt-eta.
Zure ondoan, Ama,
babesa eta indarra sentitzen dot.
Zeulako Ama daukadala pentzatzeak
adorea emoten deust, beste barik.
Zure besoak indartzen nau,

zure eskuak gidatzen bidean.
Orrela bake gozoan, ostera be,
jarraitzen deusat bideari.
Barru ta kanpo
bizibarritu nagizu, Ama,
bizitzaren ederra ikustera
biurtu naiten zure eskutik.
Jaso egizu nire gogoa,
Ama maitea, bildur barik
bidea egin dagidan.
Amak ume txikiari lez,
emoidazu zure eskua,
bidean zuzen eta bizkor
ibilli naiten.
Emoidazu zure bedeinkaziñoa,
munduan zure bedeinkaziñoaren
ezaugarri izan naiten.
Alargunen
eta jubilatuen Erregina,
zaindu gagizuz zure magalpean.

LASTER ARTE, JAUNA

Jainko maitagarria,
nire billa zatozanean,
errukiz deitu eidazu,
mesedez, atean, Zeu eldu zarela
neu konturatu naiten.
Gogoan dot bein esan zenduna:
Lapurra lez, gauzez etorriko naz.
Ez daitela izan olan derrigorrez.
Beste era batera be
etorri zaitেকে, ez ala?
Beti prest egoteko
agindu zeunskun. Eskerrik asko.
Baina, begira Jauna:
Nazen baldarraz, etxea garbitzean,
errez zikintzen naz eta,
orregaitik, amantala ipinten dot.
Alatan lagunen batek-edo
atean jotean, amantala kendu eta
garbi,txukun agertzen naz atean...
Emoidazu amantala kentzeko astia,
Jauna, nire atera
nire billa zatozanean,
garbi-eta patxadaz artu zaidazan.
Auxe eskatzen deusut,

baina Zeuk egin nai dozuna,
orixe izango da-ta onena.
Neuk agertu gura neuntsun
guraritxo bat izan da.
Ez al da olantxe jokutzen
lagun-artean?
Ez al zara Zeu nire lagun andia,
egundo utsik egiten ez dakizuna
eta nik osoro maite dodan laguna?
Laster arte, Jauna.

35

EGUNON, JAUNA

Jauna, egunon!
Emon deustazun egun barri au asteen,
eskerrak emon gura deustudaz
eta biotzez eskatzen deustut:
bakearen, argiaren
eta sendotasunaren doaia.
Erakutsi egidazu, Jauna,
mundua begi maitakorrez begirutzen,
neure bide guztietan
samurra, apala
eta pazientzi andikoa izaten.
Gizon eta emakumeak
zeure begi garbiez begirutzen,
soinkera eta itxura guztietan
zeure eskua ikusiaz,
bakotxaren ontasuna
asmatu aal daidan.
Itxi nire belarriak
marmarketa guztiei,
zaindu nire miiña
txarto-esan guztitik,
pentzamentu zuzen eta garbiak
sortu nigan beti.
Inguratzen jatazan guztiak,

nire asmoaren zuzenaz
Zeu ikusi zagiezela, ene Jaun.
Eta egizu gaur egun guztian
ni ikusten nabenak
Zeu sentidu zagiezela. Amen.



36

JAUNA, ERAKUTSI EGIDAZU KRISTAU LEZ ZAARTZEN

Jauna, erakutsi egidazu
kristau lez zaartzen.
Ikusiazoz egidazu
ez dirala oker ibilli
niri ardurak kendu deustezanak
eta eritxirik eskatzen ez deustentak,
nire lekua betetzeko;
beste bateri deitzen deustentak.
Kendu egidazu neugandu neban
bizi-esperientziaren arrokeritxoa
eta neure burua
bear-bearrezkotzat sentitzea.

Baina lagundu egidazu,
arren, Jauna,
besteentzat lagungarri izateko;
orain nire ardurak euren gain
artzen dabezenak
neure alaitasunez poztuteko.
Funtsezko arduretatik
urten bearra onartu dagidala,
eguzkiaren sarrera
berez-berez onartzen dan lez.

Eskerrak damotsudaz, Jauna,
Zuk deustazun maitasun andiaz
konturatuazo nozulako.
Egizu, Jauna,
esker onez eta itxaropenez
begiratu dagidala
Zeuk prestatu deustazun
zorionezko elburua.
Jauna, lagundu egidazu
elduaz-elduaz,
onelantxe zaartzen.

**NIRE BIZIA ZURE ESKUETAN DAGO,
JAUNA**

Aita, zure eskuetan naukazu.
Egizu gura dozuna nigaz.
Nigaz egingo dozun guztiagaitik
eskerrak emoten deustudaz.

Danerako nago prest,
dana onartzen dot,
nigan eta zure izaki guztietan
zure naia bete dadin.
Ez dot besterik nai, ene Jainko.

Nire bizia zure eskuetan jartzen dot,
Zeuri damotsut, ene Jaungokoiko,
nire biotzeko indar guztiagaz
benetan maite zaitudalako.
Maitasun-bear bat da niretzat
dana Zuri emotea, ezer kendu barik,
dana zure eskuetan iztea uste osoz,
Zu neure Aita zarealako. Amen.

38

AUNDIAGOTU ATEA, JAUNA

Aundiagotu egizu atea, Aita,
bestelan ezin sartu naiteke-ta.
Umeentzat egin zendun Zuk
eta ni, nai ezta be,
azi egin nozu...

Atea aundiagotzen ez badozu,
txikiagotu nagizu, arren, neu,
biotzez umearora biurtu nagizu,
bizitza ames egitea zendun
arako adinera.

39

NI EZIN NAZ ZU BARIK BIZI,
ENE JAINKO

Kristo,
nire salbatzaile maitea,
illuntasunaren esparruan sartu naz
eta barruko lainoak
kalte egiten deuste,
zauritu egiten nabe,
errukarri izten nabe.

Zure premiñan sentitzen naz.
Ba dakit Zu nigan zagozana.
Baina isilik zagoz, geldi,
nire deiaren zain.

Zuk ondo dakizu...
Ni ezin naz Zu barik bizi.
Zu barik bizitza
utsa eta latza da,
zentzunik bakoa, kolore bakoa.
Zu barik bizitza,
zoritxar andia.

Kristo Jesus,
ez zaitez isilik gelditu.
Salbau nagizu.

40

ERRUKI NITAZ, JAUNA

Jainko errukiorra,
badakizu nire urte luzeen barri,
Zeuk emonak dira.
Eskerrik asko,
bizitzan zear emondako
mesede guztiekaitik.
Eta parkatu, arren, neure argalkeriaz
zure doai ta mesedeai
ondo ez erantzuteagaitik.

Gaur gogo beroz eskatzen deusut:
geratzen jatan bizi-epean
zure naiagaz
leial-leiala izan naitela,
Eta emendik orra,
etxez aldatzea datorrenean,
artu nagizu, ene Aitatxo biguna,
zure betiko Etxaldean.

41

ERIoTZ ON BAT ESKATZEKO

Bizien eta illen Aita ona,
Zeure antzeko sortu nozu
eta zeure Seme Jesus
eriotzara eskeini dozu,
geugaitik, geu salbatzearren.
Bere izenean eskatzen deusut:
Beti otoitzean itxarrik
biziteko grazia,
mundu onetatik zeure maitasunean
urteteko suertea
eta zeure errukizko altzo gozoan
betiko loa artzeko zoriona. Amen.

**ZORIONEKOAK, ZAARTZAROA
ZORIONTSU EGITEN DABENAK**

Zorionekoak zaarra kargatzat
artzen ez dabenak,
eurengan poz eta itxaropenezko
berben premiñan dagoen
Jesusen anai-arreben bat
aurkitu dabelako.

Zorionekoak etxeko larrialdi
ta guzti, zaarrei leenengo lekua
emoten deutesnak, etxeko
ondasunik maitagarriena
eurak dira-ta.

Zorionekoak, etxeko eta auzoko
zaarren alde astia emoten dakienak
denpora baliotsua zer dan
jakingo dabelako.

Zorionekoak, zaarren txotxakeria
eta kaskaldiak onartu
eta euren onari begiratzen dakienak,
zentzuna izango dabelako.

Zorionekoak, zaarren sinisten
dabenak eta egia, gorde barik,
argi eta garbi esaten dakienak,
egizale izango dira-ta.

Zorionekoak, zaarren gorrieria
itxurgatu barik, gauzea barrero
gozoro errepikatzen dakienak,
pazientziaren jabe dira-ta.

Zorionekoak, zaarrei bearrezko
gogo-laguntzak
prestatzen deutesnak,
Jainko-errukia izango dabe-ta.

Zorionekoak, gaisoak
konortea noiz galdu egon barik,
eleizakoei bide emoten deutesnak,
Eleizaren laguntza izango dabe-ta.

Zorionekoak, eriotz-ordua,
gaisoei isildu barik, sasoiz iragarri
eta bear-laguntza emoten deutesnak,
Jainkoaren deia entzungo dabe-ta.

Zorionekoak, zaarren bizi-eskola
ederra jasoten dabenak,
txandea datorkenean, zelan jokatu eta
nork lagundu izango dabe-ta.

**JAUNA, NAI BADOZU,
OSATU NAIKEZU**

Jauna, beti izan deusat bildur
gaisotasunari, gaur be bai...
Egia esan,
alde batetik osatu egin nau.
Arrezkero nigan zerbait aldatu da,
arteko nire uste ta itxaropenak:
indarra, almena, irabaziak...
Gaisotasunak
danak bota deustaz ankaaz gora.
Gaur beste mundu baten
sartuta nago,
askoz be sakonagoa dan munduan:
bizitzaren biotzeraino sartu naz,
zer dan maitatzea
eta maitatua izatea, ikasi dot.
Baiña, Jauna, ez da erreza
gaisotasuna bizi-iturri biurtzea.

Jauna, ezin dot besteekin bat egin,
besteak zer egingo
zain egon bear beti.
Baina, nik neuk be,
neure egitekoa aurkitu dot orain.

Nire bizitza ez da alperrikoa.
Ekintzarako ez dot balio,
baina sentibera, adoretzu
eta kementsu izaten,
testigutza ederra
eskeini neinke bertotik.
Bardin sinimen eta maitasunean.
Jauna, niretzat nai dozun
bizibide barri au betetzen
lagundu egidazu.

Jauna, nire oiñazeminak
sentikor egiten nabe.
Ez naitela neure barruan
gorde eta zarratu.
Esker oneko agertu naitela
neure lagunekaz.
Eskerrak Zuri,
laguntzen deusten guztiekaitik.
Erakutsi egidazu, Jauna,
edozetariko mesedeak estimatzen.
Eskerrak biotzez, Jauna.

BEDEINKATU EGIZUZ, JAUNA

Zorionekoak izan beitez, Jauna,
nire oinak balantzaka
eta nire eskuak dardaraka dabiltzala,
ulertzen eta onartzen nabenak.

Zorionekoak beitez, Jauna,
ni erdi gortuta egonik,
zarataka berba
egin bear deustenak.

Zorionekoak izan beitez, Jauna,
nire begien lausoa eta nekea,
nire zentzunen geldotasuna
onartzen dabenak.

Zorionekoak beitez, Jauna,
“ara, gaur kontu bardina
irugarrenez kontaten deustazu”
esaten ez deustenak.

Zorionekoak izan beitez, Jauna,
beinolako nire pasadisu pozgarriak
gogora ekarten deustezenak.

Zorionekoak beitez, Jauna,
ni egunero bizkortzen,
laguntzen eta zaintzen nabenak.

Zorionekoak izan beitez, Jauna,
nik, neure kabuz,
kurutzea eroateko indarrik
ez daukadala, konturatzen diranak.

Zorionekoak beitez, Jauna,
emen geratzen jatazan eguntxoak
maitez gozatzen deustezenak.

Zorionekoak izan beitez, Jauna,
al dodana egiteko bideak
zabaltzen deustezenak.

Zorionekoak beitez, Jauna,
euren asti apur bat
neure ondoan emotera
urreratzen jatazanak.

Zorionekoak izan beitez, Jauna,
nire ongilleak,
gisajo oneri egindako mesedeak
Zeuri egindakotzat
artzen dozuzalako.

ZAARTZAROKO ZORIONTASUNAK

Zoriontsuak zaartzaroa,
bizitzako une illuntzat barik,
Jainkoren erregalu eta doai lez
onartzen daben zaarrak.

Zoriontsuak gaillurrera eldu
eta geiago bizitzeko
gogoia eta bizi-poza daukenak.

Zoriontsuak euren zaartzaroa
familiarentzat erregalu
eta grazi biurtzen dabenak.

Zoriontsuak norberagan itxi barik,
zaartzaroko indarrak
Eleizaren serbitzurako
ipinten dabezanak.

Zoriontsuak zer emonik
gelditzen ez jaken zaarrak,
oraindino euren irribarrea
eta itxaropenezko berbak
gelditzen jakezelako.

Zoriontsuak zaartzaroko astia
illobak zaindu eta beste
lantxoak egiten emoten dabenak.

Zoriontsuak euren ezinak
garraztasun barik onartu
eta familiaren onerako
eskeintzen dabezenak.

Zoriontsuak bizitza benetan maite
eta eriotzaren bildur barik bizi
eta bizitzako ondore lez
onartzen dabenak.

Zoriontsuak bizitzaren
arratsaldera eldu direlarik,
Bateoko azitxoak birbiztu
eta egoera barria
biotz andiz besarkatzen dabenak.

Zoriontsuak, eriotzaren bildur barik,
Gaisoen Oliadurako Sakramentua
sasoiz eskatu eta alaitasunez
artzen dabenak
Kurutzean il zan Jesus
ondoan sentiduko dabelako.

Zoriontsuak, euren bizitzako ezbearrakaitik Jaungoikoari konturik eskatu barik, eskerrak emoten deutsöezenak, Kurutzeko Jesusen antzeko egiten direlako.

Zoriontsuak eurak baino zaarragoei laguntzeko denporia emon eta euren ondoan egoteko gogoia agertzen dabenak.

Zoriontsuak, igarokoen illeta barik, itxaroten daben Jaungoikoari aurrez begiratzen deutsoenak, laster Beragaz aurkituko dira-ta.

Zoriontsuak bizitzaz aspertu ezarren, ilteko bakea agertzen dabenak, Jainkoagaz bein betiko alkartzeko egarria sentitzen dabelako.

JUBILATUEN KURUTZEBIDEA

Kontuan artzekoak:

• *Bakarrik naiz taldean egin leiteke, eleizan naiz etxean edo batzarrean.*

• *Ez dago bakotxean zetan osorik egin. Egotaldiren baten zeozerk ikutu edo Jaunak argi egiten badeutsu, bertan gelditu eta ekin ausnarrean.*

• *Danentzako egina da, naiz bakotxak daroagun kurutzea ezbardina izan, naiz ta senar-emazteak izan. Orregaitik txitean-pitean norberegantzeko isilalditxoak, eta geldiuneak egin.*

• *Jesus Kurutzekoaren irudia eskuetan edo aurrean eukitea oso egokia da. Berari sarri begiratu, mosuak emon edo isilean entzun...*

• *Egotaldi bakotxean esan astiro: Gurtzen zaitugu, Kristo, eta*


bedeinkatzen, zure Kurutzearen
bitartez mundua berrerosi dozulako.
*Eta egotaldi bakotxaren
azkenean Gure Aita...*

SARRERAKO OTOITZA

Jesukristo gure Salbatzaillea,
zeure bizia emonaz
betiko biztu nozuna:
Zeuri Kurutzbidean
pausoz-pauso jarraitzeko
prestau egidazu biotza.
Arren, eskatzen deutsut
emoidazula zure erakutsiak
jasoteko argia
eta zintzo jarraitzeko
berotasuna eta kemena.
Nire kurutzbidea amaitzera doa,
kurutzepean makurtuta,
zaartzaroan aurrera noa,
oraintxe zaitut
iñoiz baino bearrezkoago,
zeure antzera,
azken betea emon dagidan.

Ama Maria,

Kurutzebideko Jesusen laguna,
artu nagizu zeure ondoan
eta erakutsi Jesusen bideak.



Leenengo egotaldia:
JESUS ERIOTZERA EPAITZEN DABE

Gurtzen zaitugu...
Jesus ona, dana ondo eginda,
erritik kanpora bialdu,
eta kurutzeko eriotzera
kondenatu zinduen:

Neuri be antzeko bat jazoten jat:
ainbeste mesede egin,

osasuna galtzeraiño dana emon,
eta orain, aintzat artu barik,
baztertu egin nabe.

Zeu zaitut, Jesus,
lagunik zintzoena,
eta ondoen ulertzen nozuna.
Zeure antzera nai dot jokatu:
Isilik jaso dozu sententzia,
barruko atsekabea
Aitari eskeini deutzazu,
neu salbatzearren
egin dozu dana. Eta nik zer?
Parkatu, Jesus, nire illetak,
eta besteai errua bota-bearrak.
Artu nagizu zeure ondoan
eta erakutsi egidazuz
zure bideak.
Gure Aita...

Bigarren egotaldia:

JESUSI KURUTZEA LEPORATZEN
DEUTSE

Gurtzen zaitugu...
Jesus, Jainko semea,
nire Berreroslea:

Ori da saria emon deustuena,
ainbeste mesede ordezt!
Zeu makalik eta odol ustuta
eta kurutze astuna lepora...

Jesus maitea,
biok gara antzeko:
ni be zartzaroan makalik, ajez beteta,
kanpora naiz barrura begiratu
bildurra besterik ez...
Eta iñoiz baiño kurutze astunagoak
lepora etxean, auzoan, lagunartean.

Jesus, Zuk illeta barik artzen dozu,
protesta barik besarkatzen dozu
kurutzea
Kurutzeagaz batera,
neu besarkatzen ninduzun,
neu salbau guran...

Eskerrik asko, Jesus,
emoten deustazun argiagaitik
Zuk, ni baino askoz
obea izanarren,
askoz geiago sufridu zenduan,
zure kurutzea niretzat
eta gizon guztientzat

salbagarri izan zan, ez alperrekoa.
Datorrena datorrela,
neuk be beste ainbeste
egiteko asmoa artzen dot, Jesus ona.
Sendotu naizu barrutik,
azkenera arte jarraitu nai deutsut
baina, zeure antzera,
eguneroko kurutzea besarkatuz,
zeure izenean eroanaz,
neure ta beste askoren onerako.
Zeugaz batera, Jauna!
Gure Aita...

Irugarren egotaldia:

JESUS LEENENGOZ JAUSTEN DA

Gurtzen zaitugu...
Munduaren Salbatzaille maitea,
Jesus gure Jauna.
Zu kurutzepean jausita?
Zu orrela, Jaungoikoa izanik?
Zenbateraino egin zaran txiki,
neure pareko izateraino...
Eta ezinean, indar gabe zagoz.
Eta Zu olan ikusirik,
barre egiten deutsue...

Ementxe naukazu, neu be, Jesus:
Leenago nintzan indartsua
gaur zaartzaroan auldua,
nai eta ezin...
nire petralkeriak...
danak bistan.

Jesus, Zu jagi eta aurrera zoaz,
iñoren amorru barik,
iñori errurik bota barik...
Gorputzez makal,
baina gogoz sendo.
Or agertzen da zure adorea,
or zure eldutasuna, Jesus.

Oraintxe ikusten dot, ene Maisu,
nire illetak, asarreak
eta ezkutuko arrokeritxoak
nondik datozen...
Gaztetan izaniko sendoaz amets
eta orain nazan apurra
ezin onarturik nabillelako...
Bai, Jauna, neu be
jausi egin nozu
zaartzaroko kurutzepean.
Lagundu, arren, Jesus,
jagi eta aurrera egiten.

Zu orrela ikusteak
barrua indarrez bete deust.
Eskerrik asko, Jauna.
Gure Aita...

Laugarren egotaldia:

JESUSEK BERE AMA
AURKITZEN DAU BIDEAN

Gurtzen zaitugu...

Jesus maitea,
gure bidelagun zintzoa,
ori ikuskizun penagarria!
Zeure Amak bidera
urteten deutsu...
Isillean eta negarrez,
baina ondotik joatzu.
Seme bakarraren ama-alargunak
Zu orrela ikusi-bearra...

Maria, Ama laztana,
ez da esatekoa zure samintasuna,
zure Semea gaiztagilletzat jo
eta lapurren artean
eriotzera daroe...
Zeu zara epaitu orren Ama...

Ni barriz, Zugaz aztuta, Ama.
Emen nozu orain
neure zaartzaroko Kalbarioan.
Zatoz, urten eidazu bidera.
Seme Jesusi lez,
ezin deustazu kurutzea kendu,
ez nire borrreruak urrindu,
baiña zagoz neure ondoan, Ama,
lagundu ibilten bidean.
Argi eta adorez bete nagizu.
Kalbarioko Ama Neketsua,
gaurtik aurrera
maiteago izango zaitut.
Gure Aita...

Bosgarren egotaldia:

SIMON ZIRENETARRAK
JESUSI LAGUNTZEN DEUTSO

Gurtzen zaitugu...

Nekeminez Aitarentzat
erosi nozun Jesus laztana:
Bidean ilgo ete zaren bildurrez,
kurutzea eroateko
Zireneko Simon
emoten deutsue bide-lagun.
Indar guztien jabe izanik,

gizontxo baten premiñan
aurkitzen zara.
Leenago gaisoen osasuna,
baztertuen laguna, txikien indarra,
deabruen zigorra eta
agintarien aurrean trebea
izan ziñana, orain ezerbez...
kurutzea be ezin eroan.
Iñoren laguntasuna bear...

Ene Jesus maitea,
neuri be beste ainbeste
jazoten jat:
ni leen jainko txiki nintzan,
ez neban iñoren bearrik...
Gaur ostera, gero ta txikiago,
gero ta gitxiago nozu,
eta gatx egiten jat
iñork lagundu bearra...

Baina Zuri begira, Jesus,
barrua nasaitzen jat:
Zu nire aldean ain aundi
eta Simonen laguntza
artzen dozu, pozik atan be.
Eta nik zergaitik ez?
Zergaitik nire zapuzkeriak?

Zuk Simon bedeinkatu egin zendun.
Santu egin zan zure ondoan.
Bera izan zan *Jainkoari*
gurutzea eroaten lagundu eutsona.

Jesus, bedeinkatu egizuz
etxeko eta auzoko *Zireneoak*,
neuri egindakoak
Zeuri egintzat artu egizuz.
Esku zabalez saritu egizuz.
Orain konturatzen nozu
zein ederra dan alkarri laguntzea.
Gure Aita...

Seigarren egotaldia:
BERONIKAK ARPEGIA
GARBITZEN DEUTSO JESUSI

Gurtzen zaitugu...
Jesukristo gure Jauna,
gure bide-erakuslea:
Leenago Zu bai gazte
lerden eta ikusgarria...
Euliak eztitara lez,
danak joazen Zugana...
Gaur barriz, txistuz
eta izerdiz zikindu,

eta giza itxurarik ez dozula,
nor urreratzen da Zugana?
Lotsa dira, iguingarri zaitue,
gainera ez da zilegi
Zuri laguntzea...

Gaur Zuri begira, ene Jesus,
neuri be beste ainbeste
jazoten jat:

Tipo ederra ninduzun neu be,
or dagoz erretratuak...Baina gaur,
au itxurea daukadana:
baldar, zikin, zimur, makur...
Iñork be ez dau nigana
urreratu gura.


Guzur plantaz, berba politak
esan bai, baina ez
neuk gura neunken abegia egin.

Zeuri lez, neuri be kontuizu:
Beronika maitatiak urreratu
eta arpegia garbituaz,
eta txukundu egiten naue,
usain gozoz igurtzi
eta mozu beroz gozaten...

Zuk, esker onez, Jesus,
zure arpegia *Beronikaren* zapian

ezarrita itxi zendun.
Egizu beste ainbeste
nire *Beronika* oneikaz:
Zeure izenean egiten deustezan
mesede ordeztu,
pozez eta graziz bete egizuz.

Ainbeste jakin izan banau,
neuk be egingo neban leenago...
Gaur ezin ete dot zeozertxo egin
neu baino txarrago dagozanen alde?
Zer egin neinke?
Gure Aita...



Zazpigarren egotaldia:

JESUS BIGARRENEZ JAUSTEN DA

Gurtzen zaitugu...

Eriotzaraiñoko maitasuna
izan deuskuzun Jesus ona:
Bigarrez jausita,
gero ta makalago zakust...
Kurutzea dan astuna,
bidearen latza...

Eta txarrena: zure kontrako
aiñenak, biraoak: *traidore*,
guzurti, *erri-nastatzaille*
deitzen deutsuenen orroak.
Danak arerio, iñor ez lagun.
Lagunak igesi, lotsarren
edo bildurrez ezkutau dira.
Lagunen ukoak, dan mingarriaz,
lurrera eratzi zaitu...

Neuk be badakit ori zer dan,
ene Jesus,
leen etxeko errege ninduzun,
seme-alaba-illobak jolasean
belaunetara etorten jatazan,
auzoan ere ba neban lagunik.
Gaur gero ta bakarrago nabil,

ez ume, ez gazte ta ez zaar...
Nire alderdi onak barik,
txarrak eta illunak
zabaltzeko prest jentea...

Jesus, Zu bai agertzen zarela
aundi or bakartadean!
Aitagaz bat eginda,
emoniko berbeari erantzunez,
lurretik jagi ta aurrera zoaz.
Ez dozuz aintzat artzen
ingurukoen esamesak
edo zeugazko jarrerak...
Zuk zeurean azkeneraiño
jarraitzen dozu...
Neuk be, egoera onetatik
jagi eta zeure bideari
jarraitu gura deusat,
Aita Jaungoikoagaz gero eta
batuago otoitzean.
Jagiten eta arnasa barria artzen,
lagundu nagizu.
Gure Aita...

Zortzigarren egotaldia:

JESUSEK JERUSALENGO ALABEI
BERBA EGITEN DEUTSE

Gurtzen zaitugu...

Munduaren argi zarean

Jesus Jauna.

Ainbeste birao eta orro artean,
ama batzuren negar zotinak
entzun dozuz.

Amorruzko orroak baino,
geiago mogidu zaitue
minduen zotinak.

Eurekana biurtu eta
ez negarrik egin –esan deutsezu–
egin negar zeuon seme-alabekaitik.

Izan be, mundua nigaz
ain gogorra bada, zer izango da
zuen seme-alabekaz?

Zeu, Jauna, premina gorrian egon
eta alan be, bestei aolku emoteko
biotza zabal eta egoera nastuan
bidea erakusteko
burua argi daukazu...

Eta niri zer diñostazu, Jesus,
egoera onetan?

Onartzen ete dozuz nire sentimentuak?

Ala egoera onetan egin daikedana
oartuazo gura ete deustazu?

Illetak eta negar-maiñak gorde,

eta zeure antzera, Aitaren aurrean
zintzo jokatzera eroan gura nozu,
neure sufrimentuak adore geiagoz
besarkatzera eta Zeugaz batean,
munduaren onerako eskeintzera...

Eskerrik asko, Jesus.

Neu be poztu nozu gaur.

Bide barria erakutsi deustazu:
ez nagola bakarrik munduan,
ba daukadala zer eginik...

Baina beti be, Zeugaz batera,
beti zeure ondotik...

Gure Aita...

Bederatzigarren egotaldia:

JESUS IRUGARRENEZ JAUSTEN DA

Gurtzen zaitugu...

Ekintzaille errimea zarean

Jesus Jauna:

Irugarrenez jausten zara,
bestetan baino beerago...

Au larregi da! Ezin dot geiago!

Eta dana alperriko balitz?...

Merezi ete dabe ainbeste nekek?

Barrua illun, gogoia jausita dozu,

eta Aita isillik.
Guzti ori lurra jotekoa da...

Jesus, Maisu maitagarri ori,
bizi-eskola argia zaiataz!
Zuk kaliza garratza
azken tantaraino edan dozu
eta nik gitxiagogaitik,
olan bizi baino, obe il
esan dot bein baiño geiagotan.
Ainbeste neke eta burruka
eta azkenean zer?
Nire aaleginak eta errezuak
egin-mesedeak ez ete dira
danak alperrikoak izan?...

Jesus, Jainko gizon egina,
pekatuan izan ezik,
danetan neure antzekoa,
eziñean be bai...
Jausialdirik izan dot bizitzan zear,
baina zaartzaro au gogorrena dozu.

Zeugandik ikasi nai dot jagiten,
bakarrik ezin dot, lagundu egidazu.
Jaso nagizu, argitu nagizu,
zure bisitatxo baten zain naukazu.

Zatoz...
Gure Aita...

Amargarren egotaldia:
JESUS BILLOSTU EGITEN DABE

Gurtzen zaitugu...
Zeru-lurren Jaun eta Jabe,
Jesus, gure Salbatzaillea:
Eguerdiko argitan,
lotsabako guztien aurrean,
billosik zagoz.
Zeuk zelan ikusten gaituzu?
Barre egiten deusue:
Jaungoikoaren Seme baaz,
datorrela Bera i salbatzera.
Orduan sinistuko joagu igan.
Iñor salbatu jok,
salbau bei orain bere burua...
Egarri zarela-ta,
ozpiña damotsue edaten.
Zure jantziak zotz egiten dabez
zeure aurrean zer norentzat.
Zer geiago esan edo egikeen?...

Ezin beerago jausi,
eta lur-jo zendun, Jesus Jauna.

Olan ikusita, nire gatzak
eta ondoezak zer dira, Jesus?
Niri egin deustezanak!
diñot sarritan, eta zer dira
nigatik esaneakoak, utsa baino,
zure sufrimentuen ondoan?

Baina, neuri be, Jesus,
erantzi egin deusteez
ako arrokeria eta plantak.
Gutziz billosik naukazu.
Zaartzaroko billustasuna
lotsagarria egiten jat.
Dana kendu, dana itzi
eta baztertu...
Ez lekurik, ez eskubiderik,
ez aginpiderik, ene Jesus.
Zeugandik ikasi nai dot
bizitzako Kalbario tontor onetan
Zeugaz jokatuaz,
Aitaren eskutik zeure koroia
merezi izan daidan.
Gure Aita...

Amaikagarren egotaldia:
JESUS KURUTZEAN JOSTEN DABE

Gurtzen zaitugu...
Ni salbatzearren
kurutzean il ziñan Jesus:
Eldu zara zeure lekura,
sarri aitatu zenduan kurutzera.
Lapur gaizkille ta iltzailentzat
egoan urkamendira...
Lapurren artean eriotzera epaitu,
euren zori bereko egin zara...
Mailluz esku-oiñak kurutzean
zulatu ta untzez josten deustuez.
Axe oiñazearen andia
eta penaren penaz egon ezina!
Ainbeste on egindako eskuak
odol-erreka dozuz,
eta ardi galduen atzetik
ainbeste pauso emoneko oiñak
untzez josita...
Eta gaisoen kexuak entzuteko
zoli zenduzan belarriak
esker on barik
destañak entzun bearrez...

Zu, Jesus, ez zara gizaki utsa,
bestelan ez zendun olan jasango.
Benetan au Jaungoikoaren
Semea da diño gudalburuak

zure ejenploa ikusi eta gero.
Emen naukazu, Jesus, neu be
ezer gitxiagoz erresuminduta,
goiak eta beeak joten...
Baina neu be geldi
zaartzaro onetan untzatuta,
ara ta ona joan gura ta ezin:
erreumea, artrosia, gerrikomiña.
Au edo ori egin nai eta geldi:
eskuak nag, atzamarrak motel,
oiñak keldo.
Zaartzaroko kurutze onetan
Zeu lagunik onena, Jesus,
zeu maisurik argiena.
Libra nagizu, ez kurutzatik,
kurutzea txarto eroatetik baiño.
Esku-oiñak lotuta zenduzanarren,
biotza leial zendunez,
ez dakidala biotza moteldu,
zaartzaroko keldotasunean.
Salbau nagizu, Jesus,
zaartzaroko kurutzean.
Gure Aita...

Amabigarren egotaldia:

JESUS KURUTZEAN ILTEN DA

Gurtzen zaitugu...
Kurutzean illaz
berrerosi gaituzun, Jesus ona:
Ortxe lapur biren erdian
eskegita zengozala,
testamenturik ederrena
itzi euskuzun zure anai-arreboi:
Andrea, orra or zure semea...,
seme, orra zure Ama...
Lapurretariko bata barriz,
zeure erreinuko gei egiten dozu,
zeure gaizkilleen alde parkamena
eskatzen Aitari: *Parkatu eiezu...*
eta Aitagan izten zeure burua:
Aita, zure eskuetan izten dot
neure espiritua.

Ene Jesus maitea,
dana bete da diñozu.
Ni zeuganatzeko zer geiago
egin zeinkean, izan be?
Zer ez zendun egin
zure maitasuna agertzearren?
Eta ori jakinik, non egon naz,
zer egin dot Zugaitik,
Zeu gogoratuaz, eskerrak emoteko?

Neu be azkenetarantz noatzu,
ene Jesus...

Ordua daneko, Zeugaz batera,
diñotsat Aitari:

Aita zure eskuetan gelditzen dira
nire bizitza eta etxea eta etxekoak,
nire azken egunak eta gora-beerak.

Kalte egin deusten guztiei
parkatzen deutset.

Eurak be parkatu daistela...

Zeure izenean, Jesus,
lotara doan umetxoak lez,

besoetan artu nagiala
eskatzen deusat Aitari.

Beragan izan dagidala
betiko poza eta atsedena.

Gure Aita...

Amairugarren egotaldia:

JESUS KURUTZETIK ERATSI ETA
AMAREN ALTZOAN IPINTEN DABE

Gurtzen zaitugu...

Jesus, Mariaren Seme

eta gure Neba-Anaia nagusia:

“Amaren altzoan bai ondo”

esan oi da,

baina Zeu ez zagoz itxura ederrean,
desegin, urratu eta odoldua baiño.

Zure Amaren negarrak
Jesusen odol arrastoekin
erreka bera egiten dabe...

Zeure altzoa, Ama,
Testamentu Barriko altarea da,
Pazko Bildotsa
Aitari eskeintzen zagoz.

Jesus, zeure Ama emon deustazu
amatzat. Eskerrik asko”

Anaiak-nebarrebak gara beraz...

Ama baten seme-alabak.

Jesus, neuk be zeure antzera,
Ama orrexen besoetan
artu gura neunke azken loa.

Izan be, munduko Kalbarioan
ba dira zaarrak eta gaisoak
besoetan artzen dakien
Marialako amak...

Gaisoei azken arnasea emoten
laguntzen dakienak:

*Neure besoetan emon eban
azken arnasea –esaten entzuten da.*

Izan be, zer ederragorik

kurutzean dagonari
ilten laguntzea baiño?
Neuk be, kurutzea eskuetan dodalarik,
Andre Mariaren antzera,
azken orduetan ondo ilten
lagundu neio baten bateri...
Eskola galanta izan litzakit.
Gure Aita...

Amalagarren egotaldia:
JESUS ILLOBIAN SARTZEN DABE

Gurtzen zaitugu...
Zeure odolez garbitu
eta berrerosi gaituzun
Kurutzeko Jesus:
Egia diño Zutaz San Paulok:
Pekatuan izan ezik,
beste gauza guztietan
geure antzeko egin zan.
Beste edozein ilkor lez,
oialetan batu eta
lurperatua izan ziñan.
Ustelkor-edo baiziñan,
arri aundi batez
gorde zinduezan illobian,
atea seilluz josi eta,

berbirtuko ziñan bildurrez,
gudariak atezain...

Illobiko arria dan pisutsua!
Zeuk be badakizu, Jesus,

Gure kanposantuak alako
arriz beteak ikusten dira
eta niri sarritan
loa kentzeraiñoko bildurra
emoten deuste...

Jesus, Zuk eriotzari aurrez aur
begiratzen zeuntsan,
ba zenkian etortekoa zana,
esan be egin zeuntsen ikasleei,
baiña Aitagan ipiten zendun ustea.
Eriotza gogoratzekoa da,
ez beragaz lokartzekoa,
bidean zuzen eta argitan
ibilteko akulua baiño.
Gorde nagizu, Jauna,
pentsamentu illunetatik,
ez nadila kanposantuko
arriei begira gelditu,
begiak Zeugana jaso barik,
ordua daneko, Aitaren Etxean

aurkitu zagidazan...

Gure Aita...

Amabosgarren egotaldia:

JESUS BIZTU EGITEN DA

Gurtzen zaitugu...

Illen artetik biztu zarean

Jesus, gure itxaropena:

Au da zure berbizteak

dakarskun poza! Gora zu, Jesus!

Eriotzea menperatu eta

illen artetik biztu zara!

Egundo orrelakorik ez da entzun,

ez eta entzungo be!

Gaueko illunpea urratuaz,

eguzki-argia zabaltzen dan lez,

zure Biztueraz argiz bete gaituzu.

Zu bizturik ikusi

eta sinistu dabenak

ezin dabe isildu miraria

eta odola emoteraiñoko

aitorra egingo dabe.

Ez dabe espetxearen

edo eriotzaren bildurrik:

Zu bizirik zagozalako...

O Jesus Berbztua,
geitu nire sinismena.

Fedez benipein, neuk be,
ikusi aal zagidazan.

Bete nagizu zeure argiz
eta bizi-pozez.

Zaartzarotik itxaro daikedanaz,
ba ete dago Zeulako lagunik?

Gorpuzkeraz aultzen noan neurrian
biztu nagizu gogakeraz, Jauna,

bete nagizu zure indarraz
eta alako itxaropenak bakarrik

ekarri daiken umore onaz...

Au naigabea! Zorionaren atetan egon
eta ezer barruntau ez!...

Bizian gora, auxe da, Jesus,

Zugaz bat egiteko bidea,

zure biztuerako argiz betetakoa.

Jubilazino aldian, edo

zaartzaroko Kalbarioan, egin neinken
gauzarik onena: Zugaz, bizi zarean

lagunik onenagaz ibiltea litzake.

Artu nagizu, Jesus,

zeure lagun bezala, zure ondoan!

Gure Aita...

**EGUNERO GOGOAN ERABILTEKO
BIOZKADAK**

Kontuan artu:

- *Egunez naiz gauez, Jaunari
zuzentzeko otoitz labur biziak dira.*
- *Sarri artzen dogu agoan txikle edo
gozokiren bat. Bardin artu ta erabili
gogo-biotzean alako biozkadaren bat,
milla bider ausnartuaz.*
- *Egunero bat aukeratu –illean eguneko
bat daukazu– Zeuk igarriko deutzazu
laster zelango eragiña dakartsun.*

1. Jauna, Zuk badakizu: nik maite
zaitut.
2. Jauna, geitu nire sinismena
3. Aita, zure eskuetan izten dot
nire bizia.
4. Jesusen Biotza, Zugan dot uste osoa.
5. Jesus, Jose eta Maria,
artu ni nazan guztia.
6. Zu zara nire Jainkoa, eskerrak Zuri.
7. Bai eder, Jainko, zure maitasuna!

8. Ene Jainko, zure egarriz daukat
gogo.
9. Egin bedi nigan zuk nai dozuna.
10. Jauna, zer nai dozu nik egitea?
11. Jauna, zure billa nabil gau ta egun.
12. Betor gugana, Jauna, zure errukia.
13. Jauna, erruki nitaz,
pekatari bat naz-ta.
14. Jauna, erakutsi egidazuz zure
bideak.
15. Santa Maria, Jaungoikoaren Ama,
erregutu gure alde.
16. Jauna, gure Jauna, bai miragarria
zure izena lurbira osoan!
17. Ene Jainko, biotz-biotzez
goresten zaitut.
18. Jauna, bizia baino obea da
zure maitasuna.
20. Gorde nagizu, Jauna, begi-ninia lez.
21. Jauna dot argi eta kemen,
nok ni bildurtu?
22. Itxaron Jaunagan eta izan kemen.
23. Erruki zakidaz, Jainko,
erruki zakidaz.

24. Goralduko zaitut, Jauna,
bizi nazan artean.
25. Biotz garbi bat
sortu nigan, Jauna.
26. Jauna, zure arnasa santua
ez kendu niri.
27. Jauna, zuk maite dozuna
gaisorik dago.
28. Jesus, bizia emoteraiño
maite izan nozu.
29. Jesus Kurutzekoa, Zeu zara
nire itxaropen bakarra.
30. Zu zara, Jauna,
nire betiko bizia.
31. Ona emen zure mirabea.

**ALKAR MAITATZEKO
OGEITAMAR AUKERA**

- *Edozeinen eskuan dagoz.*
- *Illeko egun bakotxeko.*

1. Geugaz artuemonean dagozan
pertsonen izenak buruz ikasi eta
gero bakotxari bere izenaz deitu.
2. Besteen gogoia eta jokerak ezagutu
eta beteten aalegindu.
3. Edozein persona, geiago barik,
ontzat emon.
4. Zuk, zeurez, on egitera jo beti,
zeure ustez gitxien merezi dabenen
alde batez be.
5. Irribarre egin beti, eten barik,
gogoz, naiz gogoz kontra.
6. Jende artean *agur* egin-zalea izan,
bardin erdi-ezagunei.

7. Gaisoak bisitau, kronikoak batez be.
8. Zure gauza ta liburuak prestau, bat edo beste galduarren be. Zeurez biurtu egizuz artunekoak.
9. Mesedegille izan eta, aal bada, inok eskatu baiño leen.
10. Kaltegiñak parkatu eta kaltegilleak gogo onez artu.
11. Gogaigarriak onartu. Ez arpegi garratzik ipiñi, eurekaz zagozanean.
12. Gogoko ez jatsuzanakaz be artuemona izan. Gorraz urduritasun barik jardun.
13. Eskutitz guztiei erantzun, aal badozu.
14. Ume txikiekaz denporea emon. Ez uste izan astia alperrik galtzea danik.

15. Zaartxoak adoretu, animatu. Ez umetutzat artu eta edozelan erabilli. Eurakan ikusten dozuzan alderdi onak goratu eta txalotu egizuz.
16. Zeure lagunen eta ezagunen santuegunak eta jaiotegunak gogoratu eta zorionak emon.
17. Erregalu txikiak egin, zure gogo ona agertzeko, batez be, ez ordezkorik artzekotan.
18. Aurretiz izentauko lekuetara ordurako joan, naiz ta zeuk besteen zain egon bear.
19. Lagunei besteek eurentaz esandako gauza onak kontau.
20. Albiste pozgarriak pillatu eta kontau.
21. Geugaz berba egiten dabenei, beste barik, ez kontra egin.

22. Modu onean agindu, egin bear danean, zaratarik gabe.
23. Eztabaidetan geure arrazoiak argi agertu, iñor zapaldu barik.
24. Iñoren okerrak zuzendu bai, baiña abisukeran, zeuk eurak baiño min geiago artuko bazendu lez.
25. Iñoren kontrako konturik ez esan bera aurrean ez dagola.
26. Lagun baten kontrako ezer entzutean, itaun egin:
a) Zeuk entzun edo ikusi dozu?
b) Ezezkoan: Uste dozu ori olan dala...?
27. Lagunartean ez jo asarre-soiñurik; iñoiz modu txarrean agertzen badozu, parka-eskatu.
28. Egunero, aal dozun geienetan, auxe egin: zeure bizitzan kaltetu dozuzanen alde otoitz egin.

29. Prestau egizuz barre-kontu batzuk eta lagunartean kontau, zeri barre egin euki dagien.
30. Zeuretzat nai zendukezan gauzatxo batzut buruari ukatu eta lagunei eskeiñi.

49

ZAARTXO BATEN ESKARIA

(71. salmotik)

1. Zeugana joten dot, Jauna,
ez nadilla betiko
zapalduta gelditu.
2. Zuzena zaran ezkeru,
askatu eta onik atera nagizu,
makurtu nigana zure belarria
eta onik atera nagizu.
3. Izan zakidaz Zeu igesleku,
ni gordetako gaztelu.
Nire gordelekua Zeu zara-ta.
4. Askatu nagizu, ene Jainko,
nire griña txarretatik.
5. Nire itxaropena
Zeu izan zintzazan, ene Jainko,
Zeu nire ustea gaztarotik.
6. Amaren sabeletik
Zeu zaitut eusgarri
nire ustea Zeugan ipini dot beti.

7. Askori miragarri izan nakie,
nire gordeleku sendoa.
Zeu zintzazan-eta.
8. Zure goralpenaz beterik
neunkan agoa eta zure aintzaz
nengon egun osoan.
9. Orain, zaartzaroan,
ez nagizu baztertu;
indarrak uts egiten deuste,
ez nagizu bertanbeera itzi.
10. Ez geratu nigandik urrun,
ene Jainko,
bizkor lagun zakidaz.
11. Ni, barriz, beti egongo naz
itxaroten,
eten barik gogoratuko zaitut.
12. Nire agoak zure laguntza
iragarriko dau
eta zeure salbabidea egun osoan.
13. Zure arrigarriak azalduko dodaz,
ene Jauna, zure garaipena
adierazoko dot.

14. Gazterik erakutsi zeunstan,
ene Jainko, eta gaurdaiño
iragarten dodaz zure mirariak.
15. Orain zaartzaroko ule zuritan
ez nagizu bertanbeera itzi,
ene Jainko orrek,
zure maitasuna nire etxekoei
azalduko deutset.
16. Zure arrigarri ta miragarriak
azalduko deutesdaz.
Nor Zulangorik, ene Jainko?
17. Ainbat arrisku astun
leporatu zeunstazan;
barriro emongo deustazu bizia,
zaartzaroko sakonetik
gora jasoko nozu.

50

**NIRE ZAARTZAROKO LAGUN
ZAITUT, JAUNA**

(71. salmoa bertsoan)

1

Zugana natorkizu,
ene Jaungoikoa,
ez bedi nire lotsa
izan betikoa.
Zuzena zaran Orrek
luzatu besoa,
erdu ta emoidazu
salbamen osoa.

2

Entzun eidazu, arren,
barruko oiua,
Zugan izan dagidan
nik gorde-lekua.
Zeu zara, ba, miretzat
lagun indartsua,
salbau ta gorde dozu
nire gaztelua.

3

Librau nagizu, Jauna,
milla arriskutatik

ez naitela aldendu
zure bidetatik.
Nire itxaropena Zeu
gazte- gaztetatik,
zeure besotan nago
jaio ta bertatik.

4

Amaren sabelean
sortu nintzanetik,
banekian Zeuk eusten
zeunstala eskutik.
Orregaitik ez daukat
nik beste asmorik,
kantuz gorald� baiño
Zeu biotz barrutik.

5

Askorentzat izan naz
grazizko mirari,
Zeu zaralako nire
esku salbagarri.
Pozaren pozez daukat
biotza igari,
eta Zuri goraka
agoa kantari.

6

Ez nagizu zapuztu
orain zaartzaroan,
indar guztiak joan
jatazan orduan.
Nire arerioak
marmarka alboan,
nire poz ta bakea
kentzeko asmoan.

7

“Jaungoikoak itzi dau
jota bazterrera,
guk eraso ta jarri
dagigun mendera.”
Arerioak izan
ez daien aukera,
erdu gaur, ene Jainko,
niri laguntzera.

8

Ni emen egongo naz
fedez itxaroten,
gero ta gartsuago
beti Zeu goraltzen.
Nire gogoak ere,
ez bada aspertzen,

ekingo deutso zure
laguntza ospatzen.

9

Au da egun osoan
nire zoramena:
Zuri eskindutea
kantuz goralpena.
Gero txalotu zure
aintzarik gorena,
eta abestuko dot
zure garaipena.

10

Gaztetatik gaurdaiño
Zu zaitut gidari,
zabaldu izan ditut
ainbat miragarri.
Begira orain nire
ule zuriari,
ez ukatu eskua
zure lagunari.

11

Agertu gura deusat
ondorengoari
Zuk egindako ainbat
gauza miragarri.

Zure izate ona
nonai da agiri,
Zulangorik ete dan
nok dinostan niri...!

12

Naigabe ta ezbear
samin ugariak,
zer ez dabe ikusi
ai, nire begiak!
Baina ezin dagike
uts egin egiak:
indar barria artzen
dau nire biziak.

13

Zuk lurpe sakonetik
aterako nozu,
barriro be zutunik
dagidan jarraitu.
Pozez beteko nozu,
biotzak alaitu,
aitita-amama onek
goratuko zaitu.

14

Eta emongo deusut
goralpen osoa,

leiala zaralako,
ene Jaungoikoa.
Baita abestu ere
esker-on salmoa
lagun dodala neure
euskerara gozoa.

15


Nire ezpanak eta
biotza batean,
abestuko deutsue
isil-eziñean...
Zeuk emon deustazu-ta
bizia bidean,
arriskuan gordez
zure babesean.

16

Bardin nire agoak
egun guztietan,
leial ekingo deutsu
bertso kantuetan.
Arerioak dagoz
beti mormoxetan,
ni Zugaz bakez nago
ta pozik benetan.

17

Aintza Aitari eta
aintza Semeari,
aintza biekandik dan
Espirituari.
Irurei aintza leen lez
orain eta beti,
gizaldi guztietan
alan izan bedi.



51

**GAISORIK DAGOEN
JUBILATU BATEN BIOZKADAK**

1

Ementxe nago gaisorik,
ezer ez daukat osorik
ta ezin dot artu lorik;
Zu, Jesus ona, egon nirekin,
ez da Zure antzekorik.
Otoi dagitsut gogotik
neure gelako zokotik.

2

Gorputza miñez batetik,
gogoa larri bestetik
ta ezin alde emendik...
Jesus maitea, ikusten zaitut
dindilizka kurutzetik:
aska nagizu illunpetik,
eroan zure atzetik,
Zeuk gura dozun bidetik.

3

Eguna luzea bada,
luzeagoa da gaba,
amaibakoa ezpada...
Onezkero ni mundu onetan

geienbat naz neke, traba;
nai badozu emon galga
eta joko dot, aal bada,
zure Etxeko aldaba.

4

Etzun, naiz jesarri, kantza,
ibilli nai ta, balantza;
sarri soiñu bako dantza...
Zugana nator laguntza eske,
Zugan daukat esperantza.
Banoatzu Etxerantza,
itxaroten zagoz, antza,
Zugaz ba dot segurantza.

5

Gaisoaren egoera
garbi noa esatera:
nekez gora, berez beera.
Ene Jainkoa, gizaki egin
gintuzun zeure antzera:
gure gogo ta aukera
eroan bere betera,
zatoz guri laguntzera.

6

Asko ditut ezagunak,
banakatxo bat, lagunak,

biotz zintzo ta bigunak.
Euroi eskerrak, argitzen jataz
bakardadeko illunak.
Oneik dira arduradunak,
Zeuk bialtzen dituzunak
gozatzen gure egunak.

7

Au poza, datorrenean
lagun bat gogo onean
egoten aldamenean!
Gure orde, Zeuk ordaindu, Jauna,
gaiso danen izenean:
zaindu bide zuzenean
eta gero azkenean
saritu zorionean.

8

Ainbeste gau eta egun,
ainbeste oiñaze astun
ta zer irabazten dogun!
Gure aienak eta otoitzak
ez ete dago nok entzun?
Eskerrak guk Zeu zaitugun
danen nagusi ta lagun;
Zurekin gara txapeldun!

52

GURE ERRIKO NAGUSIAK

1

Jubilatuak gara gu,
esan bearra daukagu:
irurogeitaz urtetik gora
pillatu bai jaku.
Zergaitik au ezkutatu?
Zaartzea ez da pekatu.
Au txarra bada, ea gazteok,
obea asmatu.

2

Mendian jaio ta azi,
antxe ogia irabazi,
gazte denporan maiteminduta,
alkarrekin bizi.
Umeak sortu ta ezi,
amarrekotxo bat kasi...
Eurak mantendu ta zuzentzea
bada naiko grazi.

3

Ez daukagu zientzirik,
bai naiko esperientzirik,
urteak barik, ez da zentzunik,
ezta pazientzirik.

Ez da izan lizentzirik,
ez ta komenientzirik;
konformidadez dagonak ez dau
falta erentzirik.

4

Ba dakigu zer dan eza,
iñortxo ez da markesa;
beti izan dogu agobeteko
arto ta tremesa.
Sarri ordu aldrebasa,
bear egin ta erreza;
eskerrak goian dagon begira
guztion Jueza.

5

Asaben lege zaarrian,
alan da Euskalerrian;
Jesukristoren dotriñaz gabiltz
modu ederrian.
Sarri dana bearrian,
baiña ez lege txarrian;
ondrautasuna ez dogu galdu
bide baztarrian.

6

Edadez goaz aurrera,
ta ezin egin atzera;

edadekuok batu gaitez
alkarren artera.
Ekin ezker batera,
lagun zintzoen antzera,
gure Jainkoak emongo deusku
laguntza gaiñera.

7

Geuk emon dogu geunkana:
osasan, bizi ta dana...
Gure Jainkoak bedeinkatu bei
egin dogun lana.
Orain batu alkargana
ta ondo pasau aal dana,
gero Jainkoak emon deiskula
zeru eder bana.

8

Gazteentzako aolkua
gu zaarrok emondakoa:
eurak obetu daiela gure
munduko lekua.
Au beti da txandakoa,
gero dator betikoa;
alkar bear ta, emon daiogun
alkarri eskua.

53

BILLA TA BILLA...

1

Billa ta billa dabil
aizea mendian,
billa ta billa nabil
munduko bidean.
Zer da egi? Non da bide?
Jauna, non zagoz Zu?
Billa ta billa nabil.
Jauna, non zagoz Zu?

2

Billa ta billa dakust
laiñoa zeruan,
billa ta billa daukat
zentzuna buruan.
Zer da egi? Non da bide?
Jauna, non zagoz Zu?
Billa ta billa nabil
Jauna, non zagoz Zu?

3

Billa ta billa dabil
erlea zelaian,
billa ta billa nabil
beti zerbait naian.

Zer da egi? Non da bide?
Jauna, non zagoz Zu?
Billa ta billa nabil,
Jauna, non zagoz Zu?

4

Billa ta billa dabil
txoria basoan,
billa ta billa jabilt
biotza kolkoan.
Zer de egi? Non da bide?
Jauna, non zagoz Zu?
Billa ta billa noa
Jauna, non zagoz Zu?


5

Billa ta billa dabil
tximeleta landan,
billa ta billa nabil
emen, or eta an...
Zer da egi? Non da bide?
Jauna, non zagoz Zu?
Billa ta billa nabil,
Jauna, non zagoz Zu?

6

Billa ta billa doa
ura ibai bete,

billa ta billa noa
Zeuganatu arte.
Zer da egi? Non da bide?
Jauna or zagoz Zu
Billa ta billa nabil
Jauna, non zagoz Zu?



54

BIZIAN GORA

1

Emen gatortzuz, Jauna,
gaur zure ondora,
alkarren lagun gara
ainbeste denpora.
Zeure taldea gara
gu *Bizian gora*,
ez al gagoz Zu ta gu
alkarren gustora?

2

Zugaz lagun gara-ta,
alkarregaz lagun,
lagunarte oberik
ba ete da iñun?
Ain pozik ibilteko
zer jazoten jakun?
Bizian gora gabiltz,
zer grazi daukagun!

3

Zugan sinisten dogu
Zu maite zaitugu,
geure lagunartean
zaitut ezagutu.

Benetan ona zara,
–ain maite gaituzu...–
gero ta lagunago
gara Zu eta gu.

4

Batzuk gazte sasoiko
gu onezkero zaar,
baiña zure soloan
bada naiko bear...
Jubilatuak gara,
baiña oraindik azkar,
emen gaukazuz, Jauna,
ta Zeuk egin deidar.

55

GORATZARREA

Bizian gora goaz
au dok urte pilla!
Bizian gora gabiltz
Biziaren billa.
Bizian gora gara
milla eta milla,
bizian gora gozuz
gu zure kuadrilla,
bizian gora-gora
ta bizi dedilla.



NON ZER

Eskeintza	
1. Zu ta ni, biok	9
2. Jauna, Zuk nai dozunaz bat nator	10
3. Biotz gaztea daukan zaar baten otoitza	12
4. Zein ederto gagozan emen, Jauna!.....	14
5. Bakarrik nago	17
6. Ajez beterik nago, Jauna	20
7. Zuk maite dozuna gaisorik dago.....	23
8. Gabon, Aita ona!.....	26
9. Jauna, zergaitik itzi nozu	28
bertanbeera?	
10. Apostoladutza nik?	32
11. Nik iñor bear dot... ..	35
iñor bear ete nau neu?	
12. Niri gazteak gogait eragiten deuste	39
13. Ni ez naz neure suin-erranen.....	43
serbitzari	
14. Ildako adizkideen alde	47
15. Nire jublatu lagunen alde	51
16. Gure illoben alde	55
17. Gure seme-alaben alde.....	59
18. Nire familiak buruko miñak	
sortzen deustaz	
19. Iñork lagundu bearrak mindu egiten nau	65
20. Bizitza maite dot eta eriotza daukat ur.....	69
21. Zaartzarora umetzarora biurtzea?	73
22. Zaartzarora jakituriaren	
eta itxaropenaren aldia	
23. Eta zaarretxe batera joango banintz?	80
24. Orain urte batzuk	
alargun geratu nintzan	
25. Ez naz gauza ezertarako be	87

26. Zaar bat naz	90
27. Diñoenez ulertu-eziñekoa naz	93
28. Ogei urte baneukaz... ikusiko leukee.....	96
29. Jauna, nire etorkizuna zer?	99
30. Ez nagizu eskutik itzi, Jauna	102
31. Artu nagizu, Jauna	105
32. Zure eskuetan izten dot dana, Jauna	107
33. Zugana nator, Ama Maria.....	109
34. Laster arte, Jauna.....	111
35. Egun on, Jauna.....	113
36. Jauna, erakutsi egidazu kristau lez zaartzen	115
37. Nire bizia zure eskuetan dago, Jauna.....	117
38. Aundiagotu atea, Jauna	118
39. Ni ezin naz Zu barik bizi, ene Jainko.....	119
40. Erruki nitaz, Jauna	120
41. Eriotz on bat eskatzeko	121
42. Zorionekoak, zaartzaroa zoriontsu egiten dabenak	122
43. Jauna, nai badozu, osatu naikezu.....	124
44. Bedeinkatu egizuz, Jauna.....	126
45. Zaartzaroko zoriontasunak.....	128
46. Jubilatuen kurutzbidea	131
47. Egunero gogoan erabilteko biozkadak.....	160
48. Alkar maitatzeko ogeitamar aukera	163
49. Zaartxo baten eskaria (71. salmoa).....	168
50. Nire zaartzaroko lagun zaitut, Jauna (71. salmoa bertsotan).....	171
51. Gaisorik dagoen jubilatuen baten otoitza.....	178
52. Gure erriko nagusiak	181
53. Billa ta billa... ..	184
54. "Bizian gora"	187
55. Goratzarrea.....	189

